

"Aurten, 264 ikastaro antolatu ditugu"



Mikel Mendarte | Kutxa Fundazioko Kultura zuzendaria | 8

Hondakinen Mahaia sortu dute Arrasaten

Irtenbideen bila, helburuak adostu gura dituzte | 10

ANDRAMAIXAK 2013
Aretxabaletakoak eta Gatzagakoak | 17



Hartz baten hezurdura aurkitu dute Oñatiko espeleologoen | 15



100 kilometroko elkartasun lasterketan izango dira lau lagun | 12

Torrebasoko jolasparkea eskoriatzarren gustukoa da

Oraindik ez dute inauguratu, baina erabilgarri dago | 27



Umeak, jolasparkean. | MIRIAN BITERI

Hausnarketa egiten egon dira 150 moja ohi Bergaran | 9

Lagunarteko bi futbol torneo jokatu dira bihar, zapatua

Arrasate Hiria eta Jose Luis Agirrerren omenezkoa | 31



Tamaina txikiko eskultura bat, Gandiagan, erakusketako panel batetik Oteitza zena begira duela.

OTEITZA EZEZAGUNENA

Jorge Oteiza: marrazkiak, estanpak eta hitzak erakusketa dago Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Haren askotariko lanak daude ikusgai. | 33

JAGOBA DOMINGO

Seigarren hilabetez, langabe gutxiago

EAEn eta Gipuzkoan ez bezala, Debagoiengan langabe gutxiagorekin (22) amaitu da abuztua | 4

50 urte

metagra
gure aukera

Gure esperientziarekin eta eguneroko lanarekin, gure bailara hotzeko estanzazioaren teknologia alorrean punta-puntan jartzen dugu.

Amillaga kalea 22
20570 Bergara
Gipuzkoa

www.metagra.com
mse@metagra.com
Tel.: 943 76 13 48

GORBEIAREN ESKUTIK
Donostiako

61.

Zinemaldira



Sartu:

CENTROCOMERCIALGORBEIA.COM-en

eta irabazi:

EGONALDI BAT 2 PERTSONARENTZAKO
DONOSTIAKO LONDRES HOTELEAN

BI SARRERA

AMAIERA GALARAKO IRAILAREN 28RAKO

ETA BAZKARI BAT 2 PERTSONARENTZAKO
BOKADO AQUARIUM JATETXEAN

Promozioak 2013ko abuztuaren
30etik irailaren 19ra arte iraugo du


GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com



61

DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL

Ikus oinarri guztiak webgune honetan:
www.centrocomercialgorbeia.com



Bizi Pottoka! ekimenak animaliekin zuzeneko harreman izatea ahalbidetzen du, pottoka gainean ibiliz, esaterako. | ARANTZAZUKO PARKETXEA

ESANAK

"Galzorian dago pottoka eta Parketxetik bultzada eman gura diogu"

MIREN ELGARRESTA
ARANTZAZUKO PARKETXEOA

"Pottokarekin harreman berezia sortzen da, errespetuan oinarritutakoa"

JON ELORTZA
POTTOKALEKUKO NAGUSIA

'Bizi Pottoka!' ekimena euskal zaldia ezagutzera emateko

- ▶ Arantzazuko Parketxearen eta Pottokalekuren arteko elkarlana da
- ▶ Bihar egingo dute azken ekintza eta aurrez eman behar da izena

ZURIÑE V.D.M. | OÑATI

Euskal zaldi arraza da pottoka, ezaugarri bereziak dituen; nabarmenena, haren tamaina txikia. Eta nahiz eta historiaurretik gure artean dagoen animalia izan, oraindik ere ezezaguna da askorentzako.

Pottokaren basa-bizitza azaltzeko asmoz, Arantzazuko Parketxeak *Bizi Pottoka!* izeneko jardunaldiak antolatu ditu Pottokalekurekin batera. Abuztuaren 24an eta 31n egin zituzten aurreneko ekintzak eta bihar, zapatua, denboraldiko azkena izango da (izena emateko: 943 78 28 94).

Pottoka gertutik ezagutzen

Jardunaldia 10:30ean hasiko da, Arantzazuko Parketxean bertan, eta antolatutako ekintza guztiak Aloña mendiaren magalean dagoen Pottokalekuko instalazioen artean egingo dituzte, "kokaleku ezin hobean", Arantzazuko Parketxe-ko Miren Elgarrestak azpimarra-

tu duenez. Aurrena, Parke Naturaleko Interpretazio Zentroan aurkezpena egingo dute, eta, ikus-entzunezko baten bitartez, zaldi txikiaren basa-bizitza ezagutzeko aukera egongo da. "Jarraian, Pottokalekura abiatuko gara, eta pertsonen eta zaldiaren arteko harreman berezia ezagutuko dugu". Errespetuan oinarritutako harremana da bertan garatzen dutena, Jon Elortza zalditegiko jabearen berbetan.

Ekimenean parte hartzen dutenek bertatik bertara euskal arrazako zaldia ezagutuko dute, nolako hankak dituen ikusi, ukitu, laztandu...: "Zuzen-zuzeneko harremana edukitzeko aukera polita da eta pottokan ibiltzeko aukera ere badago. Jendeak ongi pasatzen du animaliaz gehiago ikasten duen bitartean".

Galzorian dagoen arraza

Euskal mendietan ikusi izan da pottoka mendeetan zehar, histo-



Ekimeneko parte-hartzaileak pottoka orrazten. | ARANTZAZUKO PARKETXEA

riaurretik gaur arte. Elortzak kanpoan ere arraza ezaguna dela eman du aditzera: "Europako arraza zaharrenetakoa da eta Katalunian edo Kolonbian eza-gutzen dute askok".

Baina etxean ezezaguna izateaz gain, galzorian dagoen arraza da pottoka, eta horixe izan da, besteak beste, Arantzazuko Parketxeak *Bizi Pottoka!* antolatzeko arrazoietakoa bat, Elgarrestak azaldu duenez: "Naturak eta kulturak bat egiten duten ekintzak eramatzen ditugu aurrera. Pottoka berez ez da animalia basatibatasia, etxeko aberea izan delako. Baina galzorian egonda eta biodibertsitatearekin dugun konpromisoa ikusita, arraza hau bultzatu gura izan dugu".

Traktoreak agertu, pottokan lan barik geratu eta arrazaren gainbehera hasi zela esan dute bai Elgarrestak eta baita Elortzak ere. "Berreskuratzeko aukera dago oraindik; turismoan kobazuloak erakusten diren moduan, pottoka ezagutzera eman daiteke. Marketina eta dirua funtsezkoak dira, bultzada emateko".

Naturarekin harremanetan

Pottokalekuko jabeak azpimarratu gura izan duenez, *Bizi Pottoka!* moduko ekintzekin jendartean galtzen joan den ohitura berreskuratzeko urrats bat egiten da. "Gizarte gehienetan galdu da milaka urteetan naturarekin egon den lotura. Eta ez hori bakarrik, bizitzaren garrantzia zein den ere ahaztu zaigu; orain, lehentasuna etxe bat edukitzea da, esate baterako".

UROLOGIAKO ZERBITZU BERRIA

Tratamenduak:

- Onkologia urologikoa (prostata, giltzurrun, maskuri eta barrabil minbiziak)
- Gernu-obstrukzioa, prostataren hiperplasia onberaren eraginez
- Bagina-prolapsoen eta emakumezkoen zein gizonezkoen gernu-inkontinentziaren diagnostikoa eta tratamendua
- Urologia pediatrikoa
- Gernu-traktuaren patologia infektziosoa
- Zutitzearen disfuntzioa

QUIRÓN
OSPITALEA
Gasteiz

ESKA EZAZU ORDUA:

QUIRÓN GASTEIZ OSPITALEA | UDALAITZ ZENTRO MEDIKOAN
Tel.: 945 25 25 00 | Tel.: 943 79 44 22

MEDIKUAK

Alberto Martín-Marquina · Anibal Rincón · Abel Saiz.

RPS: 136/12

www.quiron.es



Abuztuan ere behera egin du langabeziak eskualdean

Martxoan hasi zen langabezia jaisten eta ordutik hona ez du igoerarik izan

IURE EIZAGIRRE | ARRASATE

Oporrak eta turismo zerbitzuak direla eta, abuztuan behera egin ohi du langabeziak. Aurten ere hala izan da, eta, Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoak emandako abuztuko datuen arabera, Debagoiengan %0,08 jaitsi zen langabe kopurua.

Abuztua 3.557 langaberekin eta %11,93ko tasarekin amaitu zen bailaran. Aurreko hilean 3.579 zeuden; beraz, 22 pertsonak topatu zuten lana azken hilabetearen zehar Debagoiengan.

Oñatin murriztu zen langabezia gehien; izan ere, abuztuan 13 pertsonak aurkitu zuten lana, eta, ondorioz, 491 langaberekin bukatu zen hilabetea. Elgetan eta Arrasaten ere behera egin zuen langabeziak. Aretxabaletan, berriz, bere horretan mantendu zen.

Beste muturrean zeuden, hau da, langabe kopuruak gora egin zuen, Leintz Gatzagan, Eskoriatzan, Antzuolan eta Bergaran. Bailarako herririk txikienean, bi pertsona berri geratu ziren langabezia, baina, herriko biztanle kopurua dela eta, %1,48ko



Industriako langileak. | IREKIA

igoera eragin zuen langabezia indizean. Gainerako herrietan igoera urriagoa izan zen.

Dena den, herri horietako zifra txarrekin ez zuten zapuztu eskualdean azken hilabetearen ezarri den egoera itxaropentsua. Izan ere, martxoan lehen jaitsiera izan zenetik, hileroko joan da murrizten Debagoieneko langabe kopurua.

HERRIZ HERRI

HERRIA	LANGABEAK	EHUNEKOA
Antzuola	117	%10,71
Aretxabaleta	317	%9,38
Arrasate	1.472	%14,21
Bergara	884	%12,61
Elgeta	43	%7,93
Eskoriatza	220	%10,80
Leintz Gatzaga	13	%9,63
Oñati	491	%9,36
GUZTIRA	3.557	%11,93

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

DATUA

362

PERTSONA

Gipuzkoan beste 362 pertsona geratu dira langabezia abuztuan.

Zailtasunak zailtasun, Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoak azken datuen arabera, bada pozteko beste arrazoi bat ere: Debagoiena da Euskal Autonomia Erkidegoan langabezia maila txikienetakoa duen eskualdeetako bat, Zuia-Gorbeialdea, Arabako Mendialdea, Lea-Artibai eta Arabako Bailarekin batera.

EAEn eta Gipuzkoan gora

Erkidegoko datuak ez dira Debagoienekoak bezain onak: lau hilabeteko joeraren ondoren, igo egin zen lanik gabe zeudenen kopurua. Abuztua 173.107 langaberekin bukatu zen, uztaila baino 1.514 gehiagorekin.

Hiru probintzietan egin zuen gora langabeziak: Gipuzkoan %0,90 igo zen (362 pertsona berri geratu ziren lanik gabe) eta aurretik zituen Araba %1,04ko igoerarekin. Bizkaian, aldiz, %0,88 egin zuen gora desenpleguak.

Nafarroan bestelakoa izan zen joera eta 254 langabe gutxiago zenbatu zituzten abuztuan.

Espainian behera

Enplegu institutuak emandako datuen arabera, Espainian jaitsi egin zen langabezia abuztuan. 31 langabetu gutxiago zeuden hilabete amaieran eta esanguratsutzat hartu dute datu hori Estatuan, abuztuan ez baita langabezia jaitsi 2000. urteaz geroztik.

Gainera, beherakada horrekin, sei hilabetez jarraian jaitsi zen langabezia. Egun, 4.698.783 langabe daude.

Hondakinen bilketarako kontratazioa berrezarrita

I.E. | ARRASATE

Euskal Autonomia Erkidegoako Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak ezeztatu egin du Urbaser enpresak hondakinak biltzeko zerbitzua esleitzeko kontratazio prozeduraren aurka jarritako helegitea. Horrekin batera, esleipenari ezarritako suspentsioa kendu du, eta kontratazio prozedurak aurrera jarraituko du.

Mankomunitateko Gobernuak iaz irailean jarri zuen martxan hondakinak bildu eta garraiatzeko sei urterako kontratua esleitzeko prozedura. 2013ko otsailean erabaki zuen kontratua Cespa enpresari esleitzea.

Aste batzuk geroago aurkeztu zuen Urbaser enpresak esleipen horren aurkako errekurtsio berezia EAeko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoren aurrean. Horren eraginez eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari jarraituz, etenda geratu zen kontratazioa, ebazpena heldu arte. Oraingo erabakiarekin, bertan behera geratu du suspentsioa.

DEBAGOIENENKO EUSKAL ESKOLA PUBLIK *A

HELDUEN HEZKUNTZA MATRIKULA 2013-2014 ikasturtea

EPA ARRASATE HHI

ARRASATE PASEALEKUA 1, 3 ETA 5
Tel 943 77 11 72

www.epaarrasate.hezkuntza.net

Irailaren 2tik 30era

I. GRADUA: ALFABETIZAZIOA / GAZTELERA / EUSKARA

II. GRADUA: GAITASUN OROKORRAK SENDOTU

III. GRADUA: BIGARREN HEZKUNTZAKO TITULUA (A eta D ereduak)

INGELES

FRANTSESA

INFORMATIKA

ARTEA

EUSKAL HERRIKO HISTORIA

IRAKURKETA DIALOGIKOA

UNIBERTSITATERAKO SARBIDEA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDEA

EPA BERGARA HHI

BARRENKALE 33
Tel 943 76 44 52

www.epabergara.hezkuntza.net

Irailaren 2tik 30era

I. GRADUA: ALFABETIZAZIOA / GAZTELERA

II. GRADUA: GAITASUN OROKORRAK SENDOTU

III. GRADUA: BIGARREN HEZKUNTZAKO TITULUA

INGELES

FRANTSESA

INFORMATIKA

UNIBERTSITATERAKO SARBIDEA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDEA

ZUAZOLA LARRAÑA BHI

OÑATI
Tel 943 78 21 50

www.zuazolalarranabhi.hezkuntza.net

* HEZIKETA ZIKLOAK, irailean ere matrikulatzeko aukera.

MEKANIZAZIOA
MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA
NATUR INGURUNEAN KIROL EKINTZEN GIDARITZA

* IKASTAROAK langile eta langabeentzat (izen-ematea zabalik)


SOLDADURA
MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA
ENERGIA BERRITAGARRIAK
DISEINU GRAFIKOA
INFORMATIKA APLIKAZIOAK

Zure etorkizunerako aukera guztiak

matrikulazio epea zabalik

irailaren 2tik 30era

Guztion eskola guztion artean





Urtero bezala, Arantzazuko Ama Birjinaren egunak jende asko batuko du. | GOIENA

Arantzazuko Ama Birjinaren egun intimoagoa izango da aurtengoa

Autobus zerbitzua egongo den arren, autoz joateko aukera ere izango da

IMANOL GALLEGO | OÑATI

Asteleheneko Arantzazuko Ama Birjinaren eguna jai egun ofiziala ez denez, jende gutxiago bertaratuko dela espero da. Erromesaldia berezia izango da, bedera-

tziurrena itxiko du-eta. Elizak egun hori hausnarketarako data izan dadila nahi du.

Ohiturari eutsiz, Oñatitik goizeko zazpietan irtengo da erromesaldia eta Zapatan fran-

tziskotarrekin batera otoi egingo dute. Santutegira fededunak eta Munilla gotzaina hurbiltzeaz gain, aurreko urteetan ez bezala, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak ere egongo dira. Lehen-



dakaritzak jakinarazi digunez, hasieratik ez, baina lehendakaria ere egongo da.

Autobus zerbitzua

07:30ean irtengo da Oñatitik lehen autobusa eta ordu erdi geroago beheranzko zerbitzua ere martxan egongo da. Gaueko bederatziak arte, autobusak ordu erdian behin irtengo dira, baina 09:30etik 13:30 bitartean autobusak 15 minutuan behin ibiliko dira. Olakuan, Kalegoienean, posta bulegoan eta Beneditarretan jendea batu ostean, Arantzazura igoko dira.

Santutegiko aparkalekuak betetzen badira, segurtasuna bermatzeko, udaltzainek Arantzazurako errepidea itxiko dute.

Presoen aldeko elkarretaratzea

Jaurlaritzako ordezkariak bertan egongo direla aprobetxatuz, Etxeratek elkarretaratzea egingo du. Bilkura goizeko 11:30ean hasi, eta arratsaldeko ordu bietan amaituko da. Elkarretaratze horretan, agintariei presoen eskubideen alde lan egiteko eskatuko diete.



Ramirez de Okariz. | J.D.

Iñigo Ramirez de Okariz
Huzei Fakultateko irakaslea

"Kultur ondarea ongi transmititzeko eredu baten falta dugu"

I.G. | ANTZUOLA

Gertuko kultura ondarearen transmisioa eta hezkuntza eragileak lehen hezkuntzan tesia defendatu zuen irakasle antzuelarrak uztailean Huzein, eta epaimahaiak *bikain cum laude* kalifikatu zuen Ramirez de Okarizen lana.

Zein da tesi honen abiapuntua?

Hiru galdera erantzun nahi izan ditut. Ikastetxeek nola transmititzen duten kultur ondarea, kultura ez formalak zein eragin duen eta nola hobe daitekeen transmisio hori.

Noiz hasi zinen tesia egiten?

Arruntena karrera bukatu osteko masterrekin hasten den proiektu bat izan ohi da, baina ez da nire kasua izan. Tesi hau nire esperientziatik osatu dudana lan bat izan da. Urte askoren buruan eragile ezberdinekin izandako harremanekin aberastu dut nire lana.

Landu duzun arloetako bat hezkuntza formala izan da; nola eragiten du horrek transmisioan?

Gure ikastetxeetan kultura ondarea landu egiten da. Hala ere, *kultur ondarea* hitza zer den identifikatzeko lan handia izan dut. Gai hau lantzen den arren, gauzak asko hobe daitezke.

Ezberdintasun handiak aurkitu dituzu?

Bai; zoritxarrez, transmisioa ez da era orekatuan gertatzen. Testuliburu batetik bestera transmisioan aldaketa handiak nabaritzen dira. Nire ustez, eredu bateratua falta bat dugu. Hezkuntza eredu Madrildik inposatuta jaso dugunez, horrek ere transmisioa mugatu egin du.

Tesia praktikan jartzeko asmorik baduzu?

Noski; ez da berehalako kontua izango, baina hezkuntza formala, hezkuntza ez formala eta museoak elkarlanean jartzen baditugu, emaitza hobeak lortuko ditugu.



San Pedro parrokia berriak bisitari asko izan ditu. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Turistak izan ditugun arren, aurten gutxiago etorri dira Debagoienara

I.G. | ARRASATE

Nahi baino bizkorrago, baina amaitu dira oporrak, eta, uda sasoi guztietan bezala, Debagoienetik turista ugari pasatu dira aurten ere. Bisitarien joan-etorria igarri dute herri nagusietako turismo bulegoetan. Hala ere, iaz baino bisitari gutxiago izan dira bailaran.

Oñati, turismoan nagusi

Oñatiko Turismo Bulegotik adierazi dutenez, uztailean eta abuztuan 3.746 lagun bertaratu dira. Kopuru polita izan arren, jaitsiera igarri dute. Edurne Urteaga teknikariak jaitsiera hori azaltzeko askotariko arra-

zoiak eman ditu: "Agentziek ibilbide aldaketak egin dituzte, egun gutxiago etorri dira eta sakrifikatutako tokietako bat Oñati izan da. Eguraldia, gainera, ez da aproposena izan barnealdera etortzeko".

Bergaran pozik

Azken hiru hilabeteetan 2.323 lagun igaro dira Bergaratik, Turismo teknikari David Zapirainek adierazi duenez. Ia 500 lagunek eskatu dute bisita gidatua egitea. Aurten, gainera, herriko Turismo Bulegoak duela gutxi berriro duten San Pedro parrokia erakusteko ahalegin berezia egin du.

Gorka Azpitarteri bost urteko espetxe-zigorra ezarri diote

Frantziako auzitegiak Jurdan Martitegi eta Alex Uriarte gazteak ere zigortu ditu epai berean

I.G. | ESKORIATZA

Frantziako Auzitegiak bost urteko espetxe-zigorra ezarri dio Gorka Azpitarre preso eskoriatzarrari, ETArekin aparatu militarreko kide izatea egotzita. Astelehenean epaitu zuten Azpitarre, eta, espetxe zigorrak gain, behin betiko Frantziatik alde egitera ere zigortu zuen Parisko Auzitegiak.

Gorka Azpitarre eskoriatzarra 2009ko apirilean atxilotu zuen Frantziako Poliziak, ETArekin hartu-eman zuelakoan, Jurdan Martitegi eta Alex Uriarterekin batera. Epai berean, harekin batera atxilotu zituzten bi gazteak ere zigortu ditu Frantziako epaitegiak. Martitegik zazpi urteko zigorra bete beharko du eta Uriarterek, aldiz, lau urtekoa.

Nathalie Dutartre auzitegiko presidentea plazaratutako testuaren arabera, epaitegiak frogatutaz ikusten du hiru gazteak ETA kideak direla; Martitegiren kasuan, gainera, ETArekin aparatu militarrean buruzagitzan egon izana ere egotzi dio.

Auzitegiak, epaia ematera koan, Martitegiri atzemandako



Gorka Azpitarre. | GOIENA

dokumentuak (eskuz idatzitakoak) izan ditu oinarri. Horietan, lehergailuen eta armen erabilerraren inguruko zenbait testu ageri ziren.

Parisen epailearen aurretik pasa ostean, epaileak hirurak espetxeratzeko agindua eman du. Azpitarre eta Martitegi dagoneko espetxean ziren; Uriarte, berriz, aske zegoen, zaintzapean, ia lau urte behin-behineko espetxaldian egon ondoren. Egund, Paris inguruan dagoen Fleury Merogis espetxean dago Gorka Azpitarre.

ZABALIK

GORKA ETXABE
http://goiena.net/iritzia/



Txin-txin... diruaren hotza!

Futbolaz aritzen naiz askotan; ordenagailuaren aurrean jartzen naizenean, ordea, ez da nire gairik gogokoena. Nahiago dut beste arlo batzuek aritzea, nahiz eta oraingoan futbolaz idatziko dudana, futbolaz baino gehiago ekonomiaz. Izan ere, Txapeldunen Ligarako sailkatzeak ekarpen ekonomiko dotorea eragingo dio Realari zuzenean eta Gipuzkoa osoari zeharka. Donostia Europako mapara itzuli da, eta tabernariak, merkatariak eta, oro har, zerbitzu sektorean dihardutenak pozik daude. Bidaia agentziak ere pozez kantari ari dira: bidaiak antolatzen, hegazkin bidaia bereziak bideratzen eta sektoreari bizitza emango dion epeari txaloka.

Realak taldekako faserako sailkatzeagatik 8,6 milioi euro jaso ditu eta irabazten duen partidu bakoitzagatik milioi bat euro irabaziko ditu. Berdinke-tagatik, milioi erdi. Final-zortzirenetarako sailkatuko balitz, hiru milioi eta erdi.

Beraz, Gipuzkoako ekonomia-errentzat garrantzitsua izango da Real Txapeldunen Ligan aritzea, eta, nola ez, nazioarteko estrategia arrakastatsua izango da aurtengoa gure futbol enpresa garrantzitsuenarentzat.

Baina badira beste zenbaki kurioso batzuk. Lyongo Olimpique taldearen kontrako neurketa adibide gisa hartuko dut, eta Aretxabaletan oso gertuko batek duen taberna izango da erreferentzia. Garagardo kontsumoak gora egin zuen nabarmen. Datu beroak hauek dira: partidua jokatu zen gauean taberna gainezka, garagardoak bar-bar (tabernariaren arabera garagardo upela aldatu beharra izan zuen), bi orduko tartean dozenaka kaña, kafe eta ardo. Dakidanez, Canal+ telebista katea eskaintzeagatik eta SGAEko eskubideak eskuratzeagatik tabernari bakoitzak 260,00 euro ordaintzen ditu hilero.

Ez da kantitate makala, baina Txapeldunen Liga berezia denez, soilik partidu horrekin Canal+ katearen hileko faktura ordaintzeko beste irabazi zuen nire lagunak. Ikusten duzuenek, oraingoan futbola eta ekonomia eskutik. Aupa, Real!

USTEAK USTE

JULEN IRIONDO | jiriondo@goiena.com

Ikasturte berria, erronkak...

Ikasturte berrirako erronka berriak izatea ohikoa da; badira, ordea, beste batzuk, berriak ez direnak, kontuan izaten jarraitu beharrekoak. Opor bukaeran gertatu zitzaizkidan Lapurdiko kostaldeko herri batean artisau azokako saltzaile bat gaztele-raz tematzea, nirekin adeitsu izan nahian, nahiz eta nik adierazi euskara nuela hizkuntza. Geroago lagunekin gaztele-raz entzun nuen beste bat –susmoa hartu nion Hegoaldekoa zela–, berriz, frantsesez etorri zitzaizkidan galdezka, eta erantzunik gabe geratu zen, hark esandakoa nik ulertu ez eta. Jarraitu beharko dugu lanean Euskal Herriaren luze-zabalean bizi garenok euskaraz elkar ulertu ahal izan dezagun egunen batean.

"Bidaia agentziak ere, pozez kantari: bidaiak antolatzen eta bideratzen..."

Hesi bako ortua

Garikoitz Iturbe
Aretxabaleta

Ortuek eguraldiaren arabera beren itxura aldatzen dute. Bada, Aretxabaletako jaietako ortuak, txosnaguneak, koloretsu eta oparo igaro ditu egunak. Beste behin ere herriko gazteek, aurtengo lemari jarraituz, erakutsi dute hesi bako borondatea, indarra eta ilusioa dutela. Aukera zuten beraiek ere hesi barruan sartu eta jaia beraien bolara egiteko, bakoitzak bere ortuan. Horren orde herriari eta herritarrei eskaintza eta giro ezin hobea eskaini diguzue.

Zorionak, lanean ibili zareten guztioi. Izen eta abizen ezberdinak dituen kolektibo koloretsu eta anitz hori osatzen duzuen guztioi. Lan gehiago edo gutxiago egin duzuenoi. Batukada doinuz gure gorputzak dantzan jarri zenituztenoi. Turno ezberdinak eginez tragoak ateratzen ibili zinetenoi. Makarroi eta solomoak prestatu zenituztenoi...

Zuei esker, Aretxabaletan ortu osasuntsu batez gozatu dugu. Aupa, zuek! Osasuna!

Antzuolatik

Jose Mari Iturbe
Antzuola

Badirudi progresoari eta progresistei esker Parisen gosaltzea, Bilbon bazkaltzea eta Antzuolan lo egitea (uzten badigute, behintzat) batzuentzat posible izango dela. A ze "poza eta zoriona" (gehiegikeria)!

Horretarako, AHT eta autopista egiten dabilta. Herri erdi zapuztu digute. Lehen baso eta zelai zirenak, orain taluz, horma, zubi eta hormigoi bihurtu dira. Bi baserri, Aitzabalalde eta Erautza, desagertu egingo dira eta zazpi iturri ur gabe geratuko dira (Irain, Pagape, Otain, Ertzile, Zupide, Olazabal, Egaran).

GUTUNAK

Bitartean, Aristin duela 40 urte egindako kolektoreak herrian bildutako ur zikinak errekarra botatzen jarraitzen du. Badirudi Mekolalde urrun dagoela... Gainera, Bergarara eta Urretxura joateko bidegorririk gabe jarraitzen dugu.

Lur industrial izan zitezkeen sail apurrak okupatu dituzte (Erautza, Ertzile, Zorrostarrieta) eta, Ipurtika bete eta egokitu beharrean, Estala gainean 1.000.000 m³ lur zintzilikatuko dizkigute.

Idalatorretik ikusten dudanak etsipena dakarkit. Iruditzen zait berriro ere handikeria nagusitu dela.

Telebista miraria

Jon Otero Uribarren
Arrasate

Mekanikaria naiz, eta aspaldi informatika kurtso bat egin nuen. Baina aho zabalik uzten naute elektronika gailuek; telebistak, adibidez.

Mendi baten dago antena erraldoi bat eta uhinak igortzen ditu telebistan ahots eta irudi higikorra sortuz? Nola da posible? Irratia,

mugikorra, musika eta bideo diskoa, ordulari digitala, ordenagailua... Txundituta.

Badakizue zer den txip bat? Barruan silizioa dauka, eta euskal entziklopediak dio milaka funtzio dituela barruan.

Hain gailu txikiak? Nola da posible? Nola fabrikatzen dute, mikroskopioz? Ze garesti!

Behin, ordenagailuak konpontzen lan egiten zuen gizon bat ezagutu nuen. Esan zidan txip bat gaizki zihoanean, berri zuri batengatik ordezkatzeko zuela, eta gailua konpondu. Baina barruan zer zegoen ez ote zekien. Nork menperatzen du milaka funtzio horien ingeniariak? Hain gailu txikian. Jainkotiar gizakiren batek? Magia egiten duena.

Behin, zeruan eguzkia minutu eta erdi desagertzen ikusi nuen. Miraria. XIX. mendean, irratia asmatu baino

lehenagoko euskaldunek Mari sorgina Anbototik Txindokira hegan joaten zela sinesten zuten (miraria), eta beste mila halako. Nilo ibaia itxi omen zen egiptoarrak akabatuz.

Aipatu entziklopediak dio budistak, *nirvana* egoera lortzean, berraragiztapen ziklo batean barnatzen direla (miraria?). Erljio bakoitzak bere mirariak ditu, onak eta txarrak. Jainkoa ona eta txarra da. Dena da. Mirari batzuk onak dira eta beste mirari batzuk, deabruarenak. Horien artean, telebista, irratia, musika diskoa, lelotu egiten baitute.

Hiru mirari hauek debekatu behar dira mundu osoan, gizartea geldotasunetik eta morbotik ateratzeko. Gero, gerokoak. Interneten tekleatu eta irakurri egiten da; beraz, ona da. Bertan bi ordu soilik utz daiteke bideoa astean. Iraultza.

Eskerrik asko!

Arantza Egaña eta Arizmendi Egaña familia
Bergara

Hasiera batean halakorik uste ez bagenuen ere, Debagoieneko Ospitalean lau egun igaro ondoren, abuztuaren 24an hil zen Jose Mari Arizmendi, idatzi hau sinatzen dugunon senarra eta gurasoa.

Lerro hauen bidez Ospitaleko langile guztiek, maila profesional zein pertsonalean, gaixorri berari eta baita bere senitartekooi ere eskaini diguten arreta eskertu nahi dugu. Larrialdi Zerbitzuetako profesionalengandik hasi, eta gainontzeko mediku, erizain, erizain laguntzaile zein administrazio-arloko langile guztiek portaera eredugarria eta exjiti litekeen gaindiko dedikazioa izan dute gurekin guztiokin eta, era horretan, eramangarriago bihurtu dute igaro dugun une zaila.

Gure esker ona, beraz, guztiei.

Karakterek, gehienez 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Zortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Otarora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetan kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

kutxa gizarte ekintza 

coaching

sare sozialak

hizkuntzak

hitzaldiak

eta gehiago

kutxa ikasgelak

2013-2014

Koloreen unibertsoa, zein da zurea?

Egitarau berria, funtzionamendu-formatu berria ikasturtearen araberakoa

Udazkeneko eta urteko jardueretarako izen-emateak 2013ko irailaren 5etik 12ra egingo dira:

Internet bidez:
www.kutxa.net

Ez ahaztu postu-kopurua mugatua dela

autodefentsa

bitxigintza

ingurumena

antzerkia

kutxabank



Mikel Mendarte | Kutxa Fundazioko Kultura zuzendaria

"Gipuzkoako jendarteak eskatzen dizkigun ikastaroak egiten ditugu"

- ▶ Aurten ere 200dik gora ikastaro antolatuko ditu Kutxa Ikasgelak
- ▶ Izen-ematea Internetez bakarrik egin daiteke, irailaren 12ra arte

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Kutxa Ikasgelak programa abian jarri du Kutxa Fundazioak aurten ere. Berritasunekin: irailetik maiatzera bitartean izango da eta Internetez bakarrik eman ahal izango da izena. Horretarako epea zabalik da irailaren 12ra arte. Kutxabankek webgunean egin daiteke. *Goiena.net* ataritik ere bada sarbiderik. Kutxa Fundazioko Kultura zuzendariak eman dizkigu zehaztasunak.

Aurten ere Kutxa Ikasgelak programaren bitartez hainbat ikastaro antolatuko dituzue. Zenbat ikastaro eta ze eratakoak?

Gipuzkoa osoan 264 programatu ditugu. Denetarikoak: jarduera tekniko eta artistikoak; literatura, arteak, ingurumena, informatika, dantza, antzerkia, informatika...; nork bere trebetasunak garatzekoak...; osasunarekin lotutakoak eta jarduera fisikoak: pilatesa, yoga...

Nork har dezake parte; hau da, ze baldintza bete behar dira ikastaroetan parte hartzeko?

Beharrezkoa da Kutxabankek bezeroa izatea eta 16 urte beteak edukitzea. Datorren urterako, bezero ez direnei ere zabaldu nahi diegu aukera. Gizartekintzaren ikuspuntutik, aukerak jendarte osoari zabaltzea da helburua.

Doan dira ikastaroak?

Batzuk bai eta beste batzuk ez.

Baina ikastaro guztiak diruz lagunduta daude. Kutxabanken Gizartekintzak babesten ditu eta, ondorioz, ia doan ateratzen zaio jendeari.

Zenbat lagunek hartzen dute parte ikastaroetan?

6.000 inguruk urtean. Azkeneko bi urteotan apur bat jaitsi egin da, baina nahiko egonkorra da.

Gipuzkoako herri guztietan antolatuko dira?

Handienetan. Guztira, 28 herritan. Debagoiengan, Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Antzuolan...

Bergarako UNEDekin elkarlanean antolatu izan dituzue hainbat. Aurten ere bai?

Bai, bai, bi erakunde garrantzitsu dira Kutxa Ikasgelako oinarriak. Bergarako UNED eta Nazaret. Horiekin biekin antolatzen ditugu jarduera gehienak: ikastaroak eta berbaldiak. Bide batez, aprobetxatu nahi dut une hau eskertzeko erakunde horiek egiten duten lana. Aliatu estrategikoak dira guretako.

"Urtero 6.000 bat lagun aritzen dira Kutxa Ikasgelako ikastaroetan"

Hiru kutxen bategiteak eta Kutxabanken sorrerak zela eragin dio Kutxa Ikasgelak programari?

Bategitea erabaki estrategiko beharrezkoa izan da. Erabaki ekonomikoa. Egin izan ez balitz, agian, ez genuke edukiko gaur egun Gizartekintzarako baliabiderik. Egia da, edozelan ere, aurten aurrekontuak behera egin duela, baina ez dio eragin ikastaro kopuruari. Beste alor batzuetatik murriztu dugu.

Aurtengo berritasunetako bat da izen-ematea Internet bidez egin behar dela. Ez da beste biderik?

Ez. Nonbaitetik aurreztu beharra zegoen eta erabaki dugu edukia ez ukitzea eta izen-emate moduetan eta aurrezteak: paperak, telefonoa, ohiko posta... Horiek aurreztu ditugu. Aurrerantzean, saretik bideratuko ditugu bezeroekiko harremanak.

Zein da ikastaroetan parte hartzen dutenen profila?

Denetik dago, baina bezeroen erdia 50 urtetik gorakoak dira eta, batez ere, emakumezkoak. Halere, gazteak erakarri nahi ditugu eta datorren urtera begira hainbat berrikuntza egingo ditugu. Ikastaroak jende gazteagoari bideratutakoak izango dira.

Internetetik izena eman behar izateak ez dizue arazorik sortuko?

Espero dugu ezetz. Jende heldu batzuen partetik kezkak



Mikel Mendarte. | GOIENA

heldu zaizkigu, baina haien senitarteko gazteagoekin eta ari dira. Bestetik, Internetetik egiteak edota sare sozialetan murgiltzeak erraztuko digu bidea jende gazteagorengana heltzeko.

Izema lehenago ematen dutenek izango dute lehentasuna?

Bai, horrela izan da beti. Irailaren 28tik aurrera esleitutako plazen berri emango dugu webgunean. Irailaren 5etik 12ra arte luzatzen da epea.

Zein da Kutxa Ikasgelak ekimenaren helburu nagusia?

1986an hasi ginen kurtsoekin. Gipuzkoako jendarteak eskatzen dizkigun ikastaroak eskaintzea da nahia. Kultura arloarekin ekin genion, baina berrikuntza ikuspegiak aintzat hartuz jendartearen premia eta nahietara egokitzen joan gara etengabe.

Gehien eskatzen diren ikastaroak zeintzuk dira?

Berbaldiak, eta gero, yoga, pilates, mantentzeko gimnasia, memoria lantzekoak, informatika, antzerkia. Azkeneko urteotan, krisiagatik edo, jantzizintza, arropak konpontzekoak...

Aktiba zaituzte

mondragonLingua rekin



HIZKUNTZAK IKASTEKO METODORIK ERAGINKORRENA.

www.mondragonlingua.com

un izateko

Gure 10 ikasletik 8k Cambridgeko azterketak gainditzen dituzte.

MondragonLinguaren konpromisoa

Aktiba zaituzte gure klaseekin.
Adin guztiak: haurrak, gazteak eta helduak.
Maila guztiak.
Hizkuntza guztiak.

Aktiba zaituzte teknologiarik aurreratuenarekin.
Zure ordenagailutik bertatik, eroso asko.
Gazteenentzat bideojoko didaktikoak.



ARRASATE

Araba etorbidea 4. Tel. 943 71 20 55

OÑATI

Motxon kalea. Tel. 943 71 60 00



eta **SAMSUNG GALAXY TABLET** bat jasoko duzu doan, zure prestakuntzan laguntzeko.

SISTEMA ML+ ikastaroetan. Bezero PARTIKULARRENTZAT. Izakinak ahitu arte. Promozio hau ezin zaio beste bati erantsi.

HERRIAK

BERGARA

Bizimodu laikoa egitera behartutako 'mojak'

Hausnarketa egiteko Bergaran batu ostean, irailean zehar gehienak beste etxe batzuetara joango dira

IMANOL GALLEGO | BERGARA

"Sartu, sartu San Pedro parrokiara eta ikusiko duzu!"; horrelako komentarioak bolo-bolo dabilta herrian. Ez da gutxiagorako: *moja zaharrak* zeuden komentura berri batzuk iritsi ziren momentutik, hizketaldi bat baino gehiago sortu dute.

Azaroan iritsi ziren Bergarara, Goenkaleko Trinitateko komentura, Munilla gotzainaren eskutik eta hark XXI. mendeko ebanjelioaren korrante berri bezala aurkeztu zituen. Korrante berri hori, baina, ez da herrian errotu, eta aldekoak dituzten arren, orokorrean moja ohiek ez dute herriaren konfiantzarik lortu. Urtarrilean, gainera, egoera okertu egin zen. Benedikto XVI.ak San Juan eta San Domingo ordena desegin eta berriro eratzeko aukera kendu zien. Orduetik hona, komentuan bizi diren arren, laikoak dira.

Elizbarrutiak, isiltasuna

Jendeak azaldutako errezeloen ostean, Gipuzkoako Gotzaindegira jo dugu eta Munillak Bergarara ekarri eta berak ongiatorri beroa egin ostean, orain hotzago daude. Bertako prentsa ardura-dunak azaldu digunez, "elizbarrutiko kontu bat denez, Gotzaindegia ez du ezer esango".

Goenkaleko komentua klaratarren ordenarena da eta haiek utzi zieten komentua. Bada, Mari Carmen Elcid-ekin berba egin dugu, bertako klaratarren ordenako Arantzazuko Ama Birjina federazioko presidentearekin, eta hark ere ez digu erantzunik eman Bergarako auziaz: "Ez dut polemika areagotu nahi".



Aurreko bankuak kendu, eta gehienek meza lurrean belauniko entzuten dute. | IMANOL GALLEGO

Erabateko itxura aldaketa

Bergarara iritsi zirenean moja abitua janzten zuten, eta euren gaztetasunak herritarren arreta piztu zuen, lehengo *moja zaharrak* ordezkatzera etorri ziren-eta. Urte hasieran Aita Santuak elizatik kanpo utzi zituenean, abitua kendu behar izan zuten. "Badakigu gure janzkera ez dela mojek eroan ohi dutena, baina 10 urtez abitua jantzi ostean, ez gara egungo neskek eroaten dituzten arropak janzteko gauza izan", dio moja ohi batek. Euren arropak sortzen dituzten komentarioak onartzen dituzte, baina, beste arlo batzuetan bezala, hemen ere, nahitaezko erabaki bat izan den arren, herritarrei eskatzen diete euren ikuspuntua "ulertu eta osotasunean ezagutzeko".



Azaroaren 30eko Goiena papera.

Elizak baztertu egin dituela ematen duen arren, ez da horrela; moja ohiek azalpen erraza eman digute: "Auzia goi-instantzietan dago, eta hanka sartu baino isiltasuna erantzun hobea izaten da".

Etorkizun zalantzarria

Moja ohiek etorkizun korapilatsua dute. Egunotan, besteak beste, horren inguruan mintzatu eta hausnartu arren, oraingoz ez dute erabaki zehatzik hartu. Bergarako parrokiatik jakinarazi dute iraila amaitu baino lehen moja ohi gehienak beste etxe batzuetara joango direla. Goenkalen geratuko dira hasieran zeuden 21ak.

Horrek, baina, ez du ordenaren etorkizuna konponduko, eta

ZUGAITZ SALEGI



"Horiei sekta usaina hartzen diet. Janzteko moduak, mezetan otoi egiteko itxurak... ez dira oso moja ortodoxoak, eta herrian ez dira askorik integratu".

XABIER LINAZISORO



"Ez ditut mojak ezagutzen, baina herritar gehienok baino denbora luzeagoa pasatzen dute elizan. Herrian asko hitz egiten da, baina niri ez didate kalterik egiten".

GLORIA LARRAÑAGA



"Herriak behar asko ditu eta moja hauek ez dute ezer egiten. Aurrekoek lan handia egiten zuten, baina hauek eskean ibiltzearekin nahiko dute".

moja ohiek beste kongregazio batzuetan txertatzearen ideia baztertu egin dute. Egoera honetan, Vatikanoko azken orduko irtenbide bat topatu ezean, moja ohiek dioten moduan: "Jainkoak jarritako froga bat da, eta hark argituko du gure bidea".

DATUA

150

MOJA OHI

Iraila amaitu baino lehen, hasierako 21 moja ohiak baino ez dira geratuko.

FORDen PIVE

3 Plana aprobetxatu

FORD FOCUS

12.990€-gatik



Ford Focus gama. Batez besteko kontsumo konbinatua: 4,2l-tik 7,2l-ra / 100 km. CO2 isurria: 109 g-tik 160 g-ra / km

MUGARRI AUTOAK Araba Etorbidea, z/g. ARRASATE



ford.es

Hondakinen Mahaia aste honetan batu da lehen aldiz

Problematikari irtenbide bat emateko helburuak adostea du egiteko nagusi

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Asteon elkartu da lehenengoz Hondakinen Mahaia. Hondakinen problematikari irtenbide bat emateko helburuak adostu gura ditu eta gaiaren gainean askotariko iritziak dituzten udal talde eta eragileak elkartu zituen.

Bilduk eta Aralarrek osatzen duten Udal Gobernu taldea, EAJ, PSE-EE eta Ezker Anitza alderdiak eta Stop Atez Ate eta Arrasate Zero Zabor taldeak izan ziren eguazteneko bileran. PP, Arrasate Garbi eta Ekologistak Martxan taldeak ere deitu zituen Udal Gobernuak, baina ez ziren bileran egon, hainbat arrazoiengatik.



Hondakinen Mahaia lehen bileran egon ziren ordezkariak. | JOKIN BEREZIARTUA

Arrasate Garbi ez da egongo

Ekologistak Martxan ez zen agertu agenda arazoengatik, baina hurrengo bileretan egongo direla iragarri dute. Arrasate Garbik, bestalde, ez du mahai horretan parte hartuko. Prentsa ohar bidez azaldu dutenez, oporren aurretik alkateak Hondakinen Mahaia eratzeko bere erabakia jakinarazi zien; baita gonbidapena egiten ziela Udaleko alderdi politikoei

eta Zero Zabor, Stop Atez Ate eta Arrasate Garbi plataformari bera-ri ere. Orduan mahaian parte hartuko zutela esan zioten alkateari. Hala ere, ez dute begi onez ikusi mahaia osaketa aldatu eta deialdia gonbidatu berriei egitea. Hala, Ezker Anitzaren eta Ekologistak Martxan taldearen presentziak "mahaia eragin-kortasuna eta oreka" oztopatzen dituela uste du Arrasate Garbik, eta horregatik ez dira egongo.

Helburuak adosteko

Lehen bileran metodologia izan zuten hizpide eta hurrengo datoren eguaztenean izango da. Udal Gobernuak "aukera berri bat" ireki gura du, "elkarrekin birziklapenean eta berrerabilpenean eragiteko". Inazio Azkarragaurizar alkateak "helburuak adostea" nabarmendu zuen: "Arduraz jokatuta behar dugu, ordua da konpromisoak hartzeko. Saiatu behar dugu helburuak adosten".

Goikobaluko Erromerixie, herriko kultura berreskuratzeko adibide

Hilaren 14an izango da, goiz eta arratsalde

J.B. | ARRASATE

Hilaren 14an Erromerixie egingo dute Goikobalun, herriko ohitura zahar bat berreskuratzeko. Zuztarrak Errotuz taldeak antolatu du Erromerixie, Udalarekin eta herriko beste hainbat talderen laguntzarekin. Asteon egin dute egun bereziaren aurkezpena eta Kepa Urteaga Kultura zinegotziak "ekimen eredugarria" dela esan zuen: "Ekimen hau eredugarria da bi arrazoiengatik: Arrasateko kulturaren parte historiko bat dakarrelako XXI. mendera eta, gainera, ekimen honek herriko talde ezberdinak auzolanean jarri dituelako". Horrez gain, Udalarendako "lehen tasunetako bat" da halako ekimenak bultzatzea: "Herriko historia eta ohiturak dira gure kulturaren oinarri, eta horiek deskubritzea, berreskuratzea eta indartzea Udalaren lana ere bada", azaldu zuen Urteagak.

Goikobalu herriari lotzea

Bestalde, Xabier Zubizarreta Zuztarrak Errotuz taldeko kidea- ren arabera, Arrasaterendako Goikobaluko inguru hori erreferente bat izan zen urte askoan: "Erromeria honen bidez, Goikobalu herriarekin gehiago lotzea eta herritarrendako erreferente bat bihurtzea gura dugu; ezagunagoa, erabiliagoa eta familiarragoa. Hala, erromeria hau behintzat urtean behin ospatzea nahiko genuke", gaineratu zuen.

Egun osoko egitaraua pres- tatu dute hilaren 14rako: 12:00e- tan, kalejira Seber Altubetik; 13:00etan, Goikobalura igoera; 13:45ean, txalaparta, bertsola- riak, dantzak, sagardoa, taloak...; 15:00etan, bazkaria norberak eramandakoarekin, kantak, trikitixa, bertsoak, jolasak, dantzak...; 18:00etan, Goikoba- lutik jaitsiera Herriko Plazara; eta amaitzeko, berbena.

Elma taberna itxita dago, PSE-EEK beste langile bat aurkitu arte

Alderdi sozialistak kudeatzen duen Elma taberna itxita dago. Kontratua amaitu denez, ber- tan lan egiteko gertu egongo den beste pertsona baten bila dihardute, PSE-EEKo prentsa bulegoaren arabera. 2012ko irailaren 14an inauguratu zuten taberna, egoitza berria- rekin batera.

Siriaren aurkako "eraso imperialista" salatzen ari dira

Gaztetxeak, LABek, Askape- nak, Ernaik eta Sortuk anto- latuta, elkarretaratzea egingo dute gaur *Eraso imperialista- rik ez, ez Sirian ez inon* lelo- pean: "Inoiz ez dituzte arrazoi humanitarioak defendatu", adierazi dute, besteak beste. Herriko Plazan izango da, 19:30ean.

MUNDU OSOA ZURE AUTOAN www.citroen.es

CITROËN nahiago du TOTAL
Kontsumo mistoa (l/100 km) / CO2 isurtzea (g/km):
CITROËN C4 PICASSO: 3,8-6,3/98-145

Stop&Start eHDI motorrak	Abiaduraren erreguladore aktiboa	Ukipenezko tableta integratua
SmartBeam argi adimendunak	Haizetako panoramikoa	Aparatzeko laguntza-sistema

CITROËN C4 PICASSO BERRIA. TECHNOSPACÉ-A

Ez da espazio kontua bakarrik. Citroën C4 Picasso berria etorkizunaren adierazle da: haizetako panoramikoa, Stop&Start eHDI motorrak, aparkatzeko laguntza-sistema, ukipenezko tableta integratua, abiaduraren erreguladore aktiboa, nahi gabeko bide aldaketarako alerta sistema, (eTouch) urgentziatzeko deien sistema, trakzio-kontrolako sistema azkarra eta nahi dituzun istorioak bizi izateko beste espazio. Citroën C4 Picasso berrian mundu osoak du lekua.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

Etor zaitetz ikustera:
Debagoieneko CITROËN Kontzesionario Ofiziala:
TALLERES CHAPIME, San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Gaurtik hasita, Iturripe osterera erabilgarri

Kiroldegiko sabaia eraberritzeko 72.800 euro pasatxo erabili dira

XABIER URZELAI | ARRASATE

Hilabeteko lanen ondoren gaur, egubakoitza, hasiko dira herriko klubak osterera ere Iturripeko kantxako instalazioak erabiltzen. Berritze lan handienak sabaian egin dituzte, ez zegoelako egoera batere onean, eta horretarako 72.800 euro pasatxo erabili dira. Lanok egiten zebiltzala, baina, ezuste bat izan zuten Freyssinet

enpresakoek, Iturripeko kantxako zati handi bat sabai gabe zegoenean euri zaparrada ederra bota zuelako –abuztuaren 8an. Horrek kalteak eragin zituen zoruan, eta konpontzeko, zoru guztia jaso behar izan zuten, dena sikatu eta osterera ere parketa jartzeko. Horrek sortutako kostua, baina, kontratistak berak hartu zuten bere gain.


Egoera txarrean zegoen

Hainbat kirol jarduera egiteko erabiltzen da Iturripeko kantxa, baina batez ere, eskubaloiko eta saskibaloiko taldeek erabiltzen dute gehien. Azken urteotan hainbatetan salatu dute kantxak zituen arazoak: euri handia egiten zenean itoginak, hezetasuna zela-eta kantxa labainkor... Inoiz bertan behera utzi behar izan

dute partiduren bat kantxa arriskutsu zegoelako. Lan hauek egin da, bi klubetako talde nagusiek ondo egin ahal izango diote aurre aurten duten erronkari.

Urte garrantzitsua aurrean

Izan ere, bai Arrasateko Eskubaloio Taldeak eta baita saskibaloiko Mondragon Unibertsitateak ere urte garrantzitsua dute aurretik. Lehenengok maila nazionalen jokatu dute –datorren asteburuan da Pitxi Herreroren ome-nezkoa– eta MUK aurrean egoteko talde indartsua du aurten.



Abuztuan, sabaia konpontzen. | I.G.



Herritar kuadrilla batu zen martitzenean, datorren zapatuan egingo duten ekitaldia aurkezteko. | T.M.

Presoen egungo egoera salatzeko, elkartasun doinuak

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Urtero moduan, euskal preso, errefuxiatu eta iheslarien eskubideen aldarrikapena ardatz izango duen Arrasateko Elkartasun Eguna irailaren 14an, zapatuan, egingo dute. Antolatutako ekitaldien artean, herriko hain-

bat tabernatan joko duten hemezortzi musika talderen kontzertuak daude.

Martitzenean egin zuten aurkezpena, eta antolatzaileek aipamen berezia egin zioten euskal presoek bizi duten espetxe politikari. Hala, Espainiako eta Fran-

tziako kartzeletan dauden 700 preso ingururen sakabanatzea salatu zuten; eta gaineratu, gaitasun larriak dituzten hamalau presok eta zigorraren hiru laurdenak beteta dituztenek kartzelan jarraitzen dutela [Egitaraua, osorik, goiena.net-en].

Datorren astean ate irekien jardunaldiak egingo dituzte AUKEAN

AUKEAk gertu du 2013-2014 ikasturteko kirol eskaintza, eta urtero antolatzen dituzten ikastaroekin batera hainbat berritasun dituzte. Nabarmena, Osasun Plana deritzona. Bertan, diabetesa, fibromialgia, asma edo beste gaixotasunen bat dutenendako egokitutako eskaintza prestatu dute. Gainera, urte bukaera arteko abonamenduen tarifak erdira jaitzi dituzte. Dagoeneko zabalik dago izen-emate epea, eta hilaren 16an hasiko dituzte ikastaroak. Irailaren 10ean, 11n, eta 12an, osterera, ate irekien jardunaldiak egingo dituzte

Interprete Desconocido eta The Convicts taldeek disko berria

Bi taldeek batera kaleratutako diskoa aurkeztuko dute bihar, zapatua, Arrasateko Dat tabernan (19:00). Talde bakoitzak sei kantu grabatu ditu Aretxabaletako Nekrosounds estudioan eta diskoa duela hiru aste jarri zuten salgai. Bi talde horiek aspalditxo hasi ziren disko berriari forma ematen; punk-rock eta punk-oi! musika aldarrikatzen duen lana. Urteak eman dituzte bi taldeek errepidean, eta baten baino gehiagotan kontzertu berean jo dute. Hala, abesti berriak ezagutzeko aukera izango da biharkoa.



IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR 

100 kilometroko elkartasun lasterketa egitea helburu

Trailwalker proba solidarioan parte hartzeko dirua batzen hasi dira lau lagun

JULEN IRIONDO | BERGARA

Jon Ander Garitano, Juantxo Aranes eta Jesus Mari Iglesias bergararrek eta Gorka Manso antzuolarrak Intermon Oxfam Gobernu Kanpoko Erakundearen Trailwalker lasterketan parte hartu nahi dute, Gironan, datorren urteko apirilean.

100 kilometroko lasterketa da, baina ez da distantzia bertan egoteko zailtasun bakararra. Izan ere, Intermonek pobrezia aurre egiteko 400 egitasmo ditu munduko 40 herrialdeetan, eta horietara bideratuko diren 1.500 euro

ortu beharko ditu lauko talde bakoitzak lasterketan parte hartu ahal izateko.

Elkartasunak bultzatuta

Eskarmentu handiko korrikalariak dira laurak, maratoni erdi eta osoak egindakoak, baina oraingoan elkartasunak bultzatu ditu korrika egitera.

Dagoeneko hasi dira lasterketa prestatzen alde fisikoari dagokionez: "Entrenamendu espezifikoak egingo ditugu", azaldu du Jon Ander Garitanok. "Trail amaieran, esaterako, Ber-

garatik Zarautzera joango gara korrika".

Alderdi fisikoaz gain, izena emateko behar dituzten 1.500 euroak batzeko lanean ere hasiak dira: kamisetak eta txartelak atera dituzte. Kamisetei dagokienez, 400 atera dituzte, urdin, berde eta gorriak eta neurri guztietakoak, eta txartelen kasuan, datorren astetik aurrera egongo dira eskuragarri, biak ala biak Depor tabernan. Laguntza emateko, kontu korronte zerbakia ere badute: 00814257830001137319



Korrikalarietako hiru, herritar gehiagorekin, Munibe plazan. | JULEN IRIONDO

Angiolillo anarkista omenduko dute bihar, zapatua, gaztetxean

M.B. | BERGARA

Ekitaldiz josita ekingo dio ikasturteari gaztetxeak. Gaur, egubakoitza, ikasturteko lehen gazte batzarra egingo dute, 17:00etan, eta, ohi bezala, interesa duten guztiei dago zabalik. 19:00etan AHTren aurkako desobediencia oinarrituta egindako ekintzei

buruzko hitzaldia egongo da eta eta Mugitu mugimenduaren ekintzak jasotzen dituen ikus-entzuzko laburra ere emango dute. 21:30ean, berriz, Tartalarien afaria egingo dute.

Bihar, zapatua, Michelle Angiolillo 1897an Canovas del Castillo orduko gobernuko presidentea

hil zuen anarkista omenduko dute. CNTk, gaztetxeak eta Angiolillo liburutegiak antolatu dute eta 12:00etan hasiko da ekitaldi batekin, eta plaka oroigarria ere jarriko dute; 14:00etan bazkari beganoa egongo da (izen-ematea 680 81 01 09 zenbakian); 16:00etan, Aitor Arantzabalek idatzitako Angiolillo liburuen 2. edizioaren muntaketa herrikoia egingo dute; eta 19:00etan, doako kontzertua egongo da Sin eta Azkaiter Pelox Jam Band-ekin.

Herria hobetzeko ideia eta proiektu lehiaketa abian jarri du Udalak

M.B. | BERGARA

Bizi dugun krisi garaia kontuan hartuta, udal ordezkariak uste dute pertsonen sormenak asko lagun dezakeela egoerari aurre egiten. Hori horrela, *Idea Zapa-rrada Bergaran: nola edo zertan hobetu Bergara?* delako lehiaketa deitu dute. Interesatuak aurkezteko; izan ere, sariketa

bikoitza izango da. Proiektuen atalean, bi onenak zein herriko proiekturik onena sarituko dira eta gauza bera egingo da ideien atalean ere. Sari berezi bat ere banatuko da. Xehetasunak www.bergara.net helbidean kontsulta daitezke.

Herria hobetzeaz gain, bergararren premiak eta lehentasunak zein diren jakiteko ere baliatuko du Udalak sariketa.

Zabalik dago izen-ematea 'Herrixa dantzan' plazako dantzen ikastaroan

M.B. | BERGARA

Jardun elkarteak *Herrixa dantzan* ikastaroa antolatu du berriz. Urrian hasi eta ekainera arte izango dira eskolak, martitzenetan, Zabalotegi aretoan: has-tapen maila 18:00etatik 19:30era izango da; maila ertaina, 18:30etik 20:00etara; eta dantza txokoa deritzona, 20:00etatik 21:30era.

Eskolak urriaren lehen hasiko dira eta dagoeneko eman daiteke izena, Jardun elkartearen (kultura etxea), jardunkultura@topagunea.com helbidean, zein 943 76 36 61 telefono zenbakian.

Ikastaroaren prezioa 17 euro da hilean; 15 euro Jarduneko bazkide izanez gero.

San Joxepetik egin du hilaren 12an pentsioen murrizketen kontrako bilkuran parte hartzeko

Gipuzkoako pentsiodunek murrizketen aurkako manifestua idatzi berri dute eta elkarretaratzea iragarri dute hilaren 12rako, lurralde osoan, *Pentsioak ukitzen dituenak ez dauka nire botoa* leloarekin. Bergarako udaletxe aurrean izango da, 19:00etatik 19:15era. Horrez gain, San Joxepetik gogora ekarri dute hilaren 19ko Legazpiko mendi martxarako izen-ematea irekita dagoela.

Astelehenean, hilaren 9an, ekingo diete ikasturte berriko eskolei Bergarako Musika Eskolan

Astelehenean abiatuko du ikasturtea Musika Eskolak. Dena den, plaza libreak geratzen diren ikasgaietan; hizkuntza musikalean, esaterako, irailaren 27ra arte dago izena emateko aukera idazkaritzan, 15:30etik 19:30era, idadkaritza@bme.e.telefonica.net helbidean zein 943 76 57 80 zenbakira deituta. Bestalde, gaur, egubakoitza, da instrumentu eskoletako ordua hartzeko eguna: ikasle berriek 16:00etan eta gainerakoek, 16:30ean.

Gaur (egubakoitza) eta astelehena bitartean hasiko dira eskolak Miguel Altuna Institutuan

Lehenengo mailako ikasleek eta Hotzeko Estanpazioko graduondoko ikasleek gaur, hilak 6, hasiko dituzte eskolak, 11:00etan. Bigarren mailako ikasleak ere gaur, egubakoitza, hasiko dira, 10:00etan. Eskaintza partzialetako ikasleek, berriz, astelehenean, hilak 9, abiatuko dute ikasturte berria Miguel Altuna Lanbide Heziketako Institutuan.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UGARTE

AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

Burdiñate

Puente al Inglés
Akademia

Ingeleseko klaseak • Azterketa ofizialean prestaketa
Eskolen errefortzua

Informa zaitez konpromiso gabe!

Tel.: 943 54 09 12 - Burdiñate 5 behea, BERGARA



BERGARAKO SHOTOKAN

KLUB BAT BAINO GEHIAGO



SHOTOKAN Karate eskolak IRAILAREN 9an hasiko dira:
Astelehen, asteazken eta ostiraletan.

Umeak: 1. txanda, 17:30etatik 18:30era Nagusiak: 19:30etik 20:30era
2. txanda, 18:30etatik 19:30era

Harremanetarako deitu 615 79 90 78 telefonora, bergarako.shotokan@gmail.com helbidera idatzi edo zatoz Bergarako Ipintza Institutuko DBH eraikuntzako gimnasia orduetan.
www.bergarakoshotokankaratedo.es





Eñaut Elorrietaren lan berriaren azala. | HONTZA

Eñaut Elorrieta Bergaran izango da hilaren 13an

XABIER URZELAI | BERGARA

Bakarkako proposamenaz dator kigu Eñaut Elorrieta Bergarara, Ken Zazpi taldeko abeslariak *Deserriko Kantak* lana erakutsiko du eta San Martin jaien barruan (irailaren 13an, 23:00etan, Udal Pilotalekuan. Sarrerak: aurrez 12 euro, leihatilan 15 euro).

Ken Zazpi utzi barik

Elorrietak bakarkako proiektua hasi behar zuela adierazi zuenean, bazirudien Euskal Herri mailan talde erreferenteetako bat izan denak bigarren mailara pasa behar zuela, beste hainbat taldeekin gertatu den moduan. Baina

ez. Abeslari gernikarrak berak azaldu du proiektu biak bateragarriak direla; hain zuzen, udazkenean Ken Zazpi disko berria aurkeztuko du.

Zalantza eta beldurrei aurre

Horixe da Elorrietak lan berri horrekin egin duena, aitortu duen moduan, beldur eta zalantza propioei aurre egin, eta baita abeslari edota musikagile moduan dituen mugak onartu ere.

Kritika ona izan du diskoak –hamar abesti dira– eta zuzenekoak Ruben Caballero eta Txus Aranbururen laguntzaz egingo ditu.

Kirol ikastaroen zozketa irailaren 10ean egingo dute

Atzo, eguna, amaitu zen Agorrosinen ikasturtera begira antolatutako kirol eskaintzan izena emateko epea, eta datorren egunean egingo dute, hilak 10, plaza guztien zozketa –aurten 2.200 plaza daude 21 kirol jardueratarako–. Bada, zozketa egin ostean, aukera egongo da libre geratzen diren plazetan izena emateko. Bestalde, irailaren 15a, domeka, izango da kanpoko igerikua erabiltzeko azken eguna, eta orduan amaituko da udako denboraldia.

Xabalote Gaztelekuak ate irekien jardunaldia egingo du asteburuan

Begarako Xabalote Gaztelekuak ateak zabalduko ditu oraingo asteburuan. Ordutegia betikoa izango da, 17:00etatik 21:30era. Baina, zerbitzua eskaintzen hasteaz batera, asteburuan ate irekien jardunaldiak egingo dituzte, eta, hori horrela, ekintza bereziak egingo dituzte. Bada, DBHko lehen kurtsoan hasteko direnak joan daitezke. Hala ere, hurrengo astetik aurrera izen-emate orria bete beharko dute gazteek gaztelekuaren sartu ahal izateko (doan).

Barbara Stammelen lanak ikusgai Aroztegin; pailazoak San Martinen

X.U. | BERGARA

Abuztu amaiera ezker, Barbara Stammel margolari alemaniarraren margolanak ikusgai daude Aroztegin, eta erakusketa hilaren 15era arte egongo da zabalik (martitzetik barikura: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan: 12:00-14:00). Bada, artelanen egilea Bavariakoa den arren, azkeneko 15 urteak Getarian egin ditu. Izan ere, Munichen egin zituen lehenengo arte ikasketak, eta Bartzelonara joan zen ondoren.

'Paperezko ilargiak'

Hori da Stammelek Bergarara ekarri duen lanaren izena:

"Erretratuak dira, baina ez dira erretratuak. Ez dira, gaia ez baita erretratu, pinturaren eta ikuslearen arteko harremanak baizik... Ikusleari pinturaren bidez zabaltzen zaion bideari buruzkoa", diosku artistak.

Gaur, pailazoak plazan

Bestalde, Zurrumurru antzerki taldearen eskutik, Pantxika eta Txinperta pailazoak izango dira gaur, egubakoitza, Bergarako San Martin plazan (18:30). Hain zuzen ere, Jardun elkarteak antolatu duen haurrendako ikuskizun horretan, pailazo dibertigarriek *Ederra zalaparta* izeneko lana erakutsiko dute eta adin guztietako gaztetxoendako da proposa.



Stammelek egindako erretratu bateko xehetasuna. | HTTP://4.BPBLOGSPOT.COM

ariznoa elkarte

2013-2014 KURTZO HASIERA

Lehiaketako kategoriak (5. mailatik gorakoak):

irailaren 6an, 18:00etan, Labegarietan

Aurre-benjaminak I (5 urtekoak):

irailaren 19an, 17:30ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan

Aurre-benjaminak II (1. eta 2. mailakoak):

irailaren 19an, 18:15ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan

Benjaminak (3. eta 4. mailakoak):

irailaren 19an, 19:00etan, Ipintza batxilergoko gimnasioan

Antzuolako taldea:

irailaren 25ean, 14:30ean, frontoian



ariznoa
elkartea
bergara

<http://ariznoaelkarteabergara.com>

Matrikula berrientzako bilera informatiboa

irailaren 12an, 18:00etan, Ipintza batxilergoko gimnasioan

Harremanetarako: ariznoa_ge@hotmail.com

690 394 492 telefona (10:00-13:00 eta 17:00-20:00 ordutegian)

Iraila osoan zehar
ATE IREKIAK Ipintzan.

Etor zaitez
gu ezagutzera!

Hartz baten hezurdura aurkitu dute AMETeko kideek abuztuan

Urpekaritza espeleologikoa ere egin dute, eta oso pozik daude emaitzekin

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aloña Mendi Espeleologia Taldeko lagunek ez dute euren jarduna eten udan. Abuztuan egindako irteeretan, gainera, aurkikuntza berriak egin dituzte. Koba batean, esaterako, hartz baten hezurdura aurkitu dute. Arkeologoei horren berri eman eta gero, hezurrak Donostiako material arkeologiko eta paleontologikoen biltegira eramane dituzte.

Espeleo-urpekuntza

Oñatin eta inguruetan hainbat ur-zulo daudela ondo dakite AMETeko lagunek, baina horietako askotara sartzeko aukera teknikorik ez dute izan orain arte. Aurtengo udan, aldiz, espeleo-urpekaritzaren bidez, hainbatetan sartzeko aukera izan dute, eta oso pozik daude.

Frantziatik etorri diren Isabelle Perpoli eta Damien Vignoles espeleo-urpekariren laguntza izan dute irteera horietan. 800 kilometro baino gehiago egin dituzte, euren bi semeekin, Oñatiko ur-zuloetan sartzeko. Saratxon (Araotz), esaterako, urpean 58 metrora iritsi dira eta Urbaltzen (Urkulu), 184 kilometroko distan-



Ibai Ugarte, Okolan. | AMET

tzia egin dute urak hartutako galerian. Ez batean ezta bestean ere, ez dute bukaera aurkitu; ur-zulo biek aurrera jarraitzen dute. "Isabellek eta Damienek egindakoa izugarritzko laguntza izan da guretako. Aurrerapen handia izan da, guretako, eurekin egindako lana", aitortu du AMETeko kide Laurent Richardek.

Udan egindako lanak bideoan grabatu dituzte, baita ur-zuloetan egindako espeleo-urpekaritza irteerak ere.

Ubaon ere, aurkikuntza

Ubaoko ur-zuloan ere sartu dira AMETeko kideak. "Galeria berria aurkitu dugu; topografiatu ere egin dugu 800 metroko galeria berria. Gune horretan ere ur azpian ibili beharra dago, eta udan eskura izan ditugun laguntzak, Frantziako lagunena zein teknika berriena, oso lagungarriak izan dira koba horretan ere. Dagoeneko hiru kilometroko luzera du Ubaoko kobak, baina esplorazioak ez dira oraindik bukatu", dio Richardek.

Arantzazun, berriz, Okolan koba berria aurkitu dute eta bi kilometro topografiatu dituzte.

Bestalde, Larrako (Nafar Pirinioak) lanetan ere hartu du parte AMETek, Euskal Herriko beste espeleologo batzuekin batera.

Erreportaje osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Aurkitutako hartzaren hezurdura; argazki txikian, masailezurra. | AMET



Isabelle Perpoli ur azpira sartzeko arropa jantzita, semeei begira. | AMET

Haur Liburutegia berrantolatu egin dute, eta lekua handitu

Martitzenetik aurrera erabiliko dute herriko txikiek eta gaztetxoek (hilak 10)

O.E. | OÑATI

Ikasturte berriarekin, antolake-ta berria eta leku handiagoa izango ditu Oñatiko Haur Liburutegiak. Izan ere, Arantzazu Ibarondo Oñatiko Udal Liburutegiaren arduradunaren esanetan, hamar urteren ostean leku handiagoren beharra ikusten zuten, bai jendearentzat eta baita lan egiteko ere. Gauzak horrela, kultur etxeko lehen solairuan zeuden bi bilera gelak Haur Hezkuntzako umeendako liburutegia izango dira aurrerantzean: "Ume txikiek helduekin irakurketa partekatzeko lekua behar dute eta hau aisialdi lasaia partekatzeko gunea izango da", dio Ibarondok.

Hain zuzen, aldaketa horrek Haur Liburutegia berrantolatzeko aukera eman die. Lehen Hezkuntzatik gorakoendako tokia izango da hori. "Haiek ere behar dute euren espazioa, eta moldaketa hauekin asko irabaziko dute la uste dut. Liburutegira doazen nerabeentzat ere onuragarria izango da", adierazi du Udal Liburutegiko arduradunak.

Abuztuan hasi zituzten era-berritze lanak. Berrantolaketa



Leku handiagoa du Haur Liburutegiak. | O.E.

eta margotze lanak bukatu dituzte eta, horrela, martitzenetik aurrera Haur Liburutegi berrituz gozatzeko aukera izango dute txiki eta gaztetxoek. "Egia da lehen egunetan ez dituela elementu guztiak izango, dekorazioa, esaterako, osatzen joango gara, baina zerbitzua bera izango da", argitu gura izan du Arantzazu Ibarondok.

Bilera gelak, sakabanatuta

Haur Liburutegia handituta, bilera-gelak lekualdatu egingo dira orain. Laixan elkarteak Bidebarrietan zuen tokian izango da bat, gaztelekuan beste bat eta kiroldegian beste bat. Bada, kultur etxean bertan ere, azkenengo solairuko gela hitzaldiak egiteko eta biltzeko izango da aurrerantzean.

Udal bulegoak, komertzioak eta ikastetxeak itxita egongo dira datorren astelehenean, hilaren 9an

Arantzazuko Amaren Eguna da datorren astelehena, hilak 9, eta zerbitzu gehienak itxita egongo dira herrian. Hiru ikastetxeak eta komertzioak, esaterako, itxita egongo dira. Udal bulegoak ere itxita egongo dira; baita liburutegia ere. Zubikoa kiroldegia, aldiz, jaiegunitako ordutegian zabalduko du, 09:00etatik 13:30era. Zinema eskaintza ere egongo da, 19:30ean.

Jose Luis Agirrerren omenezko partidua jokatu du Aloña Mendik bihar Erandioaren kontra

Jose Luis Agirre zenaren omenezko III. saria jokatu du bihar, zapatua, Aloña Mendik. Erandio taldearen aurka jokatu du, Azkoagainen. 17:00etan da partidua. Datorren astean hasiko du denboraldi berria Aloña Mendiko futboleko erregional taldeak eta taldearen aurkezpena bihar jokatu duen partiduan egingo du etxeko taldeak.

Txantxiku Txuriurdinak lagunartek kamisetak aterako ditu eta probatzera joateko dei egin du

Txantxiku Txuriurdinak lagunartek taldeko kamisetak atera gura ditu. Neurri askotarikoak izango dira eta probatzera joateko dei egin du. Aloña Mendi elkarte sotoan izango dituzte tamaina askotariko kamisetak, probatzeko, martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:00etara. Zapatuan, goizetik. 20 eurotan salduko dituzte eta eskaera egitean ordaindu behar dira.

Aloña Mendiko areto futbol saila martxan da berriro eta bihar da izen-ematea, kantxa berdean

Aloña Mendiko areto futbol sailak hasi du denboraldi berria. Aurten, mutilen infantil, kadete eta gazteen taldeek Gipuzkoako Txapelketa jokatu dute. Infantilen (2000. eta 2001. urteetan jaiotakoak) eta kadeteen (1999. eta 1998. urteetan jaiotakoak) areto futboleko taldeko kide nahi izanez gero, izen-ematea bihar da, irailak 7, 16:00etan, kiroldegiko kantxa berdean.

Zubikoako kirol ikastaroak hilaren 16an hasiko dituzte

Igeriketa ikastaroetarako izen-ematea hilaren 10etik 17ra izango da

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Zubikoako kiroldegian gertu dute ikasturte berria: fitness eta gimnasiako zerbitzuak hilaren 16an hasiko dituzte (ikastaroen taula ikusgai dago kiroldegiko sarrean), eta igeriketa ikastaroetarako eta ur-ekintzetarako izen-ematea hilaren 10etik 17ra egingo dute. Azken horiek urriaren 16an hasiko dituzte.

Aurre-matrikula uztailean

Fitness eta gimnasia zerbitzuetarako aurre-matrikula uztailean egin zuten. Iaz ikastaroetan parte hartu zutenek dute lehentasuna, eta dagoeneko osatu dute ikastaroen taula. Besteak beste, gimnasia terapeutikoa, hirugarren adinekoentzako gimnasia, aerobika, sasoiaren egoteko gimnasia, gimnasia terapeutikoa eta harmonikoa, fit-bike eta erditze ondorengo gimnasia eskaintzen dituzte. Bestalde, udan egindako gimnasia abdominal hipopresiboaren eta dantza afrikarren ikastaroek jarraipena izango dute.

Ate irekien saioa

Hilaren 16an hasiko diren ikastaroak probatu gura dutenek ate irekien saioak izango dituzte datorren astean, hilaren 10etik 13ra. Ezagutzen ez dituzten zerbitzuak probatu, eta ikastaroa emango duen irakaslearen aholkuak eta gomendioak entzuteko aukera izango dute. Ate irekien ondoren, ikastaroetan izena emateko aukera izango dute.

Igeriketa ikastaroak

Bestalde, umeendako eta helduendako igeriketa ikastaroak eta ur-ekintzak urriaren 14an hasiko dituzte, baina izenak datorren astean eman beharko dira: hilaren 10etik 17ra, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.



Hainbat herritar 2012ko Zubikoako spinning maratoian. | JOSETXO ARANTZABAL

Squash kantxak konponduta

Abuztuaren 30ean itxi egin zituzten Zubikoako kiroldegiko hiru squash kantxak. Horietako bateko sabaiko zati bat erori egin zen, eta, prebentzio moduan, hirurak itxi zituzten. Orduetik hona, ezin izan dira erabili.

Asteon teknikariak ibili dira arazoaren oinarria topatu guran. Hainbat ikerketa egin ostean, sabaia konpontzeko lanak hasi dituzte. Sabaiko zuloa estaltzen dutenean zabalduko dituzte kiroldegiko kantxak erabiltzaileendako.

Ondoren, behin-behineko zerrendak kaleratuko dituzte, hilaren 20an. Emaitzarekin gustura ez daudenek erreklamazioa aurkezteko aukera izango dute hilaren 24tik 27ra. Behin betiko taldeak, berriz, urriaren 3an publikatuko dituzte.

Igeriketa ikastaroak adinka antolatuko dituzte: 6-12 hilabete, 12-14 hilabete, 2-3 urte, 3-4 urte, 4-8 urte, gazteak eta helduak. Igeriketa ikastaroez gain, aquagyma, aquatrininga, waterpolo eta ur-jolasak egingo dituzte.

Neguko ordutegiarekin

Irailarekin batera hasi dira neguko ordutegiarekin lanean kiroldegian. Hori horrela, asteleheneretik egubakoitzera 07:30etik 21:30era zabalduko dute; zapatuetan 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:30era; eta domeketan 09:00etatik 13:30era.

Zinta lasterketarekin hasiko dituzte gaur Atzeko kaleko jaiak

Musikak eta sokamuturrak leku berezia izango dute domekara arteko ospakizunetan

M.B. | OÑATI

Gaur hasiko dituzte Arantzazuko Ama Birjinaren omenezko jaiak Atzeko kalean. Eguna bera astelehenean, hilaren 9an, ospatuko dute Arantzazun bertan. Hori horrela, askotariko ekitaldiak egongo dira ikusgai domekara arte.

Rock kontzertua

Jaiak, baina, Atzeko kalean errotuta dagoen ekitaldi batekin hasiko dituzte: 16:00etan zinta lasterketa egingo dute, eta ondoren jolasak. Txorimaloen ondoren (19:00), berriz, txikiteoa egingo dute (20:00) auzoko tabernetan.

Gaurko rock kontzertuan, Segismundo Toxicomano, Never

Surrender eta Papalagi igoko dira oholtzara, 22:30ean.

Saskiaren zozketa

Zapatuan bazkaria egingo du jai batzordeak, eta 17:30ean Arno ganadutegiko poneyak eta sokamuturrak egongo dira. Gau erdian piroteknia saioa ikusi ahal izango da, eta ondoren, Zopilotes Txirriaos taldeak girotuko du auzoa. Goizaldean, helduendako zinta lasterketa egingo dute.

Domekan, mus txapelketan, Atzeko kaleko txirrindulari proba eta bakarriketa saioa egingo dituzte, besteak beste. Jaiak bukatzeko, saskia zozketatuko dute. Etxafuegokin agurtuko dituzte festak.

Oñatiko saria, mendiko kriteriumaren barruan

Biharko txirrindulari lasterketan juniorrek eta bigarren urteko kadeteek parte hartuko dute

M.B. | OÑATI

Aloña Mendi txirrindulari sailak antolatutako Mikel Deuna saria jokatu dute bihar, zapatua, 10:30ean. Juniorrek eta bigarren urteko kadete mailakoek parte hartuko dute.

Foru plazatik irtenda, 88 kilometroko ibilbidea bete beharko dute. Tartean, Udana eta Atagoiti igo beharko dituzte. Antolatzaileek 100 bat ziklista espero dituzte. Horien artean

egongo dira Mikel Fernandez juniorra (Sumofic) eta Julen Umerez, Xabier Aiausti eta Beñat Azkoaga oñatiar kadeteak.

Mendi kriteriuma

Oñatin jokatu dute proba V. mendiko kriteriumeko lehen izango da. Beste biak Mutiloan jokatu dituzte domekan: lehen sektorea 55 kilometrokoa izango da eta bigarrena, lau kilometroko erlojupekoa.



XABIER REZABAL



Surf festa arrakastatsua izan zen, beste behin

Abuztua agurtzeko ohiko bihurtu den surf festak arrakasta itzela izan zuen abuztuaren 31n. Sardina, Usakoko saltoak eta fixed txirrindulari proba izan ziren protagonistak eta herritarrengan arreta piztu zutenak. Usakon trebeena Jon Cantero izan zen eta bizikleta gainean, berriz, Xabier Altube Orueta.

ARETXABAETA
JAIETAN!

ANDRAMAIXAK 2013



Jai hasieran, ikurrinari agurra egin zioten.



Gazteak, sokamuturrean, bigantxa zirikatzen.



Andramixak,
alaitasunaren eta
maitasunaren festak.

Kalean ospatu dituzte "munduko jairik onenak"

Inoiz baino gehiago, kalera irten dira aurten aretxabaletarrak Andramaixez goatzera. Oporrak jaien arabera antolatu zituzten askok | 18



Ana Bolinaga alkatea, Nikole Iriarte alkateorde txikiarekin eta Jokin Larrinaga alkate txikiarekin.



Zo-Zongo perkusio taldeak zarata arte bihurtu zuen.

Gemes
estetika

Ilargi plaza 2 / Tel.: 943 79 99 18
ARETXABAETA



Zure irudi-aholkulariak

Kalean ospatu dituzte "munduko jairik onenak"

I.G./L.K. | ARETXABALETA

Inoiz baino jai kaletiaragoak izan dira Andra Mari jaiak, eguraldi onak lagunduta: "Jende piloa ibili da, bai egunez eta bai gauzez, eta Udalak oso balorazio ona egiten du. Gehien gustatu izan zaigu jendearen parte-hartzea eta gazte, heldu eta adin guztietako jendea kalera irten dela", esan digu Kultura zinegotziak, Zigor Kintanillak.



Txupinazoa eta gero, txistulari eta danbor-joleen emanaldia.



Bebe bakarlariaren kontzertua.

Jendearen ahalegina

Ekintza arrakastatsuenak kalean izan dira, baita aurtengo izarretako bat, Bebe bakarlariaren kontzertua. Jende asko joan zen bertara. "Urtero tokatzen da jendea erakartzeko zerbait egitea. Baina hori baino gehiago baloratzen dut jendeak egin duen ahalegina: Gazte Ekimenak, txosnek... Lan horrek eman dio eguneroko giroari bere kalitatea", dio Kintanillak.

Izan ere, aretxabalarrek argi dute "munduko jairik onenak" direla, Ana Bolinaga alkateak esan zuen moduan.

20-21 orrialdeetan ere argazkiak.



Milagroko Bandak emanaldia egin zuen Andramari Egunean.



Puzgarrietan, pozik.



Emakumeak, jai hasierako ekitaldian, udaletxe aurrean.



Txosnaguneko antolatzaile taldea.



HERRIKO PLAZAKO DENDARI ETA TABERNARIEN PARTETIK...

ESKERRIK ASKO



IOSU
harategia • taberna



Urdaitegia-gozotegia • Kroasantegia • Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08



Elizako paretarekin ere ausartu ziren eskalatzaileak.



Kaleko boulder txapelketa, Durana kalean.



Txikienak ere puzgarrietan ibili ziren.



Kuadrillen pikean, sokatiran.



Manolo Zubillaga omendu zuten, Leintz Bailarako Itzulia antolatatu izan duelako urte askoan.

Gazteentzako Moda

Durana kalea, 20
20550 Aretxabaleta
☎ 943 53 27 39



34. Mus Txapelketa jokatu zuten 38 bikotek.



Eskalatzaileek ikusle asko izan zituzten.




Jokoen aurretik , Adin tarte guztietako koadrilek ederto pasa zuten jaietako herri bazkarian.



ARETXABALETA
Tel.: 943 77 06 12
gertujanariak@euskalnet.net



Primerako lehengaiak erabiliz prestatutako jakiak



Gurea
TABERNA



Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64



131 txirrindularik egin zuten 75. Leintz Bailarako Itzulia. Argazkian, helmuga zeharkatzen.



Lizarate taldeko Rafa Marquezek irabazi zuen txirrindulari lasterketa.



Umeek gogotik gozatu zuten apar-festan.



Argazki gehiago eta bideoak: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Txupinazoarekin hasi zen festa, eta jendea kalera irten zen. | ARGAZKILARIAK: IMANOL GALLEGU, UBANE MADERA, ANDONI GOITI, KOLDO GUTIERREZ.

ARETXA AUTOAK

1982. urtetik Atxabaltarron artean. Eskerrik asko guztioi!



350 m² - Elektrizitatea eta mekanika - Txapa eta pintura - SEAT, Volkswagen eta Audi autoetan espezialistak



Basabe poligonoa A-2-4 - ARETXABALETA - Tel.: 943 71 00 68 - Ordutegia: 09:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00
E-posta.: taller@autosaretxa.com - www.autosaretxa.com

ANDRAMAIXAK 2013

JAIETAKO EGITARAUUA

BARIKUA

6

17:30 Jaien HASIERA Porrotx eta Porrotxinekin, bonba japoniarrak, txalaparta, kanpaik...

22:00 ROCK kontzertuak.

ZAPATUA

7

12:00 TXOTXONGILOAK Tendereterekin.

AGURRA

EUGENIO OTXOA
Leintz Gatzagako alkatea



'Bil bitez Gatzan altzora'

Denak dotore etorri dira. Aurtengo erretratora. Ablairen barre irripartsuai. Herria bildu albora. Bertako egin gaituzte danok. Inor ez baztertu inora. Kanpotar eta bertakoak be. Bil bitez Gatzan altzora.

16:30 MUS eta BRISKA txapelketak herriko elkarteetan.

17:00 PUZGARRIAK eta DJ FESTA ume eta gurasoentzat.

19:00 BOLO txapelketa.

19:00 BEDERATZIURRENA Dorletako santutegian.

► Eskoriatzako abesbatzak abestuko du.

► Ondoren, gazta, ardoa eta ogia banatuko da.

21:30 HERRI AFARIA.

► Ondoren, PETTI musikaria.

00:30 GOSE taldearen kontzertua.

DOMEKA

8

09:00 MOUNTAIN BIKE zeharkaldia.



GOSE | DOMEKAN | PLAZAN | 00:30 Arrasateko hirukoak trikiti, elektronika eta argi ikuskizuna ekarriko du. Bosgarren diskoarekin joango dira zapatuan.

11:00 OTXANDIOKOEI ongietorria.

12:00 MEZA Dorletako santutegian (Eskoriatzako abesbatzarekin).

13:00 HERRI KIROLA eta IPARRALDEKO JOKOAK San Miguel plazan.

19:00 ARRASATE MUSIKAL Big Band.

ZAPATUA

14

14:30 JUBILATUEN bazkaria.

16:30 PILOTA finalak.

► Beteranoak 2, Beteranoak 1, Gazteak, Seniorrak.



JON BEREZIBAR

BEDERATZIURRENA | ZAPATUAN | SANTUTEGIAN | 19:00 Dorletako santutegian zapatuan izango da bederatziurren elizkizuna. Eskoriatzako abesbatzak abestuko du elizkizunean. Domekan ere meza esango da 12:00etan Eskoriatzako abesbatzarekin.



J.B.

AFARIA | ZAPATUA | PLAZA | 21:00 Herria afaria egingo dute aurtien. Irudian, iaz egin zuten bazkariko prestaketen une bat. Parrillada egin zuten pilotalekuan.



sormen o o o
industrial design

Andramai jai zoriontsuak!!

'Zapo' untxiaren haurrentzako bi ipuinen kontakizuna Bilboko El Tenderete taldearen eskutik bihar

A. ARANBURUZABALA | GATZAGA

20 urteko eskarmentua duen Bilboko El Tenderete taldeak *Basoko ipuin laburrak* haurrentzako ikuskizuna egingo du bihar, zapatua, 12:00etan, herriko plazan.

Eskuko txotxongiloekin baliatuz, familia giroan gozatzeko moduko bi istorio labur kontatuko dituzte, bereziki 3 eta 5 urte bitarteko haurren gozamenerako.

Ikuskizun estreinatu berria

Aurtengo Bilboko jaietan erakutsi dute lehenengoz bihar Gatzagara ekarriko duten lana.

50 minutuan, musika lagun duela, *Zapo* untxiak bi istorio kontatuko ditu euskaraz: lehenengoan, landatu berri duen lorea izango du protagonista eta bigarreanean, berriz, auzokide gaiztoarekin *Zapa*-k eta biek dituzten tirabirak.

Kontakizunean zehar, beste zazpi panpina aurkeztuko ditu: besteak beste, *Tisana* medikua, *Erlea* eta *Garabia*; horiei guztiei emango diete bizia hiru txotxongilo-manipulatzailerak eta teknikariak. Helduentzako lanak egiten hasi baziren ere, azkenaldian oso gustura ari dira haurren aurrean antzeztzen.



Zapo untxia da protagonistetako bat. | EL TENDERETE

Iñaki Agirreurreta | Kultura zinegotzia

"Herria eta haren inguruak ezagutzeko aitzakia ona dira jaiak"

Asteburuko egitarau nagusiaz gainera, irailaren 14an erretiratu eta pilotazaleendako hitzorduak

A.A. | LEINTZ GATZAGA

Gustura da Iñaki Agirreurreta (Arrasate, 1964) Leintz Gatzagako Kultura zinegotzia hastear dauden jaiek erakusten duten itxuraz. Herritarrez gainera, ibarrekoak ere gonbidatu ditu jaietan parte hartzera; harrituta dio Debagoienean badagoela oraindik sekula herrian izan ez denik.

Zelan datoz aurtengo jaiak?

Egitarau indartsua lotu dugu aurten. Beste herrietan moduan, hemen ere ekitaldi finkoak ditugu jaien oinarri, baina saiatu gara berrikuntzak ere sartzen.

Berrikuntza aipagarrienak?

Musika kontuak, esaterako; domekan, Arrasate Musikaleko Big Band taldea izango dugu eta zapatuan, berriz, Petti eta Gose. Izan ere, Petti iaz izan zen herrian, Mundumiraren bueltan, eta Gosekoen atzetik aspaldi genbiltzan. Gaur rock kontzertua izango da, ohi bezala, ibarreko taldeen aldeko apustuarekin jarraituta. Arra-



Iñaki Agirreurreta. | GOIENA

sateko Interpretete Desconocido, Aretxabaletako Drop eta Abadiñoako Kruders datoz.

Herria txikia izanik, nola antolatzen zarete lanerako?

Aurten jai batzorde bat eratzen saiatu garen arren, ez dugu lortu, baina kalea izan da topaleku edo batzarleku. Batekin elkartu, besteari beste lan bat agindu... Elkarrekin gaude beti. Jaietan

bertan ere horrela ibiltzen gara; zapatuko herri afaria izaten da urtero ekitaldirik jendetsuena. Ba, guztion artean egingo dugu guztia: emakumeek entsaladak prestatuko dituzte eta gizonezkoek, berriz, saiheskia... Jendea lagun-tzeko prest izaten da beti.

Porrotx eta Porrotxinek emango diete jaietako panpina berezirik ez duzue.

Lagunak ditu Porrotxek Gatzagan eta aspalditik zuen gurean zerbait egiteko gogoia. Txalapartariak, kanpai hotsak eta bonba japoniarak ere izango ditugu.

Aurten, baina, zapi berriak ez.

Iaz atera eta saldu genituen pila bat, eta horietako asko ditugunez oraindik, gaur banatuko ditugu, segur aski.

Pregoirik eta jaietako panpina berezirik ez duzue.

[Barreak] Ez dugu pregoi beharrik! Eugenio Otxoa alkateak badu herritarrei bertsotan egiteko ohitura; akaso, izango du zer edo zer prestatuta. Auskalo!

Asteburuan dira ekitaldi nagusiak, baina irailaren 14, zapatua, ere gorritz duzue markatuta.

Egun potoloa biharkoa izaten da; besteak beste, ia herri osoa batzen den afaria dago. Ama Birjinaren egunean (domeka) ere, kanpoko jende asko hurbiltzen da. Datorren zapatuan, berriz, urtero Eugenio Villarrek prestatzen duen erretiratuentzako bazkaria eta pilota finalak ditugu gero.

Bukatzeo, aholkurik baduzu?

Espiritu onarekin etor zaitezte, herri txikia den arren, guztiontzako egingo dugu eta tokiak.



"Leintz Gatzagako Udalak Andramaixa zorientsuak opa dizkizue gatzagar guztioi"



Frontoia bete jende duela bi urteko Andramaixetako herri afarian. | LEINTZ GATZAGAKO UDALA

Iazko bazkariaren ondoren, gatzagarrik herri afarian batuko dira aurten berriro

Ama Birjinaren eguna zapatua den urteetan bakarrik egingo dute bazkaria

IURE EIZAGIRRE | LEINTZ GATZAGA
Ama Birjina bezpera izan ohi da gatzagar guztiak mahaiaren bueltan batzeko eguna. Aurten ere hala izango da, baina, iazko herri bazkariaren ondoren, herri afaria berreskuratuko dute jaietan.

Otxandiarrei urtero egiten zaien ongietorria luzatu eta elkarrekin ordu gehiagoz gozatu ahal izateko egin zuten iaz herri bazkaria, afaria egin beharrean. Kultura zinegotzi Iñaki Agirreurretak esandakoaren arabera, "Ama Birjinaren eguna zapatua egokitzen den urteetan bakarrik egingo da herri bazkaria". Izan

ere, egun horretan egiten zaie ongietorria bizkaitarrei. Beraz, aurrerantzean, hainbat urtetik behin egokituko da bazkaria afariaren orde.

Gainerakoan ez da berrikuntzarik izango zapatuan 21:30ean hasiko den afarian. Atzo amaitu zen txartelen salmenta, eta, azken urteetan moduan, 170 pertsonarendako lekua egongo da, 115 heldurendako eta 55 haurrendako. Lehenengoek 12 euroren truke erosi ahal izan dute txartela eta haurrek, 5 eurogatik.

Menua ere azken urteetako bera izango da: bertako produk-

tuekin egindako entsalada, saiheskia eta, postrerako, flana eta izozkia.

Petti, afalostean

Sabela bete ondoren, belarriak goxatzeko momentua izango da afalostea. Eta horretarako, Petti bakarlariaren laguntza izango dute gatzagarrek, afaria amaitu bezain pronto emango dio-eta hasiera abeslari beratarrak bere musika emanaldiari.

Haren ostean, eta agertokia aldatu barik, Gose talde arrasatearrak eskainiko du kontzertua. Emanaldia 00:30ean hasiko da.

Mendi bizikleta bultzatzeko XI. zeharkaldia domekan

Parte-hartzaileen artean bertako produktuak zozkatuko dituzte, aurten iaz baino gehiago

I.E. | LEINTZ GATZAGA

Iazko urteurren biribil eta arrakastatsuen ostean, bizikleta zaletasuna bultzatzeko asmo berarekin antolatu du Dorleta txirrindulari elkarteak Leintz Gatzagako XI. mendi bizikleta zeharkaldia. Domekan, 09:00etan hasiko da proba, baina izen-ematea 08:00etatik aurrera egin beharko da herriko frontoian. Txirrindulari federatuek 12 euro ordaindu beharko dituzte eta federatu gabeek, 15 euro.

San Miguel plaza izango da zeharkaldiaren abiapuntu eta handik Aurdinera joango dira txirrindulariak. Hiruerreketa pasa ostean, Leintz Gatzagara itzuliko dira, atsedendaldia labur bat egitera. Indarberrituta, Marotora joan-etorria egingo dute eta herrigunean bertan amaituko dute 32,6 kilometroko proba. Zeharkaldiaren ondoren,

partaide guztiendako luntxa emango dute.

Gaztetatik zaletasuna sortu nahian, 14 urtetik gorako gaztetxoek ere parte hartu ahal izango dute proban. Gatzaga eta Dorleta arteko ibilbidea egingo dute, 10:00etan.

Urtero moduan, bertako produktuak zozkatuko dituzte parte-hartzaileen artean, eta, antolatzaileek jakinarazi dutenez, aurten iaz baino produktu gehiago lortu dituzte zozketarako. Gainera, izena ematen duten guztiak probako kamiseta oroigarria jasoko dute.

Herri kirolak

Kirol ekintzek jarraipena izango dute bizikleta zeharkaldiaren ondoren, izan ere, 13:00etatik aurrera herri kirolak izango dira plazan. Iparraldeko jokoak ezagutzeko aukera izango da.



Iazko mendi bizikletako partaideak, irteeran. | GOIENA



Arrasate Musikaleko Big Band taldea, kontzertuan, iaz, Arrasaten. | GOIENA

Arrasate Musikaleko Big Band-ek agurtuko ditu jaiak

Lehen aldiz eskainiko du kontzertua Leintz Gatzagan eta gustura hartu dute deia

I.E. | LEINTZ GATZAGA

Asteburua giro alai pasatu ostean, modu berean eta musikaren laguntzaz agurtuko dituzte jaiak gatzaga-

garrek domekan. Arrasate Musikaleko Big Band-ek 19:00etan emango duen kontzertua izango da jaien amaierako ekitaldia.

Azkenaldiko erreperitorioa eskainiko du taldeak, nahiz eta rock eta funk gehiago sartuko duen. Juan Sangrek abestuko du, Bea Azurmendi, Amaia Arriaran eta Maria Izagarekin batera.

Lehen aldiz Leintz Gatzagan

Lehen aldiz joko du Big Band-ek Leintz Gatzagan, eta, Zigor Martinez zuzendariak azaldu duenez, oso gustura hartu dute deia. Gainera, jendearen aldetik harrera ona espero dute.



10 logela zabal
eta eroak

•
Menu
bereziak

•
30 pertsonendako
aretoa



ondo ibili jaxetan!

Mendizaletasuna eta festa nagusi domekan Kurtzebarri egunean

Murrukixok jana eta edana prestatuko du bertaratzen direnentzat

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Berezia da Kurtzebarri aretxabaletarrentzako, eta, urtero-urtero, iraileko bigarren domekan ospatzen da Kurtzebarri eguna. Aurten ere herritar ugari hartuko dute mendian gorako bidea festarekin bat egiteko.

Eta, urtero bezala, Murrukixoko Mendi Elkartek tontorreraino igotzen direnentzako egitaraua prestatu du. "10:30ean salda beroa hartzeko aukera izango dute bertaratzen direnek eta 11:00etan, berriz, meza izango da. Jarraian, mokadutxo batekin indarberrituko gara: txorizoa eta xanpaina egongo da denontzat!". Hala azaldu du Murrukixoko presidente Iñaki San Migelek.

Areantzakoak, 25 urte igotzen

Bestalde, Areantzako Agorreko Andramaixek urtero egiten dute bat Kurtzebarri egunarekin, eta, azken 25 urteotan bezalaxe, auzokoez tontorrerako bidea hartuko dute, eta igoera gidatua antolatuko dute horretarako: Iturriko erro-maran hasi, Intxaurbe, Uretza, Aretxu, Arditurri, Eguatxa, Intsi-



1988ko irailaren 11n egin zuten lehenengo talde argazkia Areantzako bizilagunek Kurtzebarriin. | RESU ABASOLO

nis, Sanjuan Iturri, Zaraixola eta Kurtzebarriaraino. Bidean, gainera, bertako kontuen eta toponimiaren argibideak emango dituztela adierazi dute antolatzaileek.

Eta behin Kurtzebarri gainera iritsita, ohiturari jarraituz, talde argazkia aterako dute. "Aurten 25. urteurrena dela eta, gura duten guztiei egiten diegu dei gurekin argazkia egin dezaten".

Hala azaldu du Julen Abasolo auzotarrak.

Ipurdi gainean behera

Eta igo ostean menditik jaisteko ordua iritsita, Areantzakoek modu

berezian egiten dute maldan behera. Tarte baten bakarrik bada ere, ipurdi gainean labanderan egiten dituzte hainbat metro, eta aurten auzokoei bakarrik ez, modu bitxi hori probatu gura duten guztiei egin diete dei parte har dezaten.

Murrukixoko presidenteari parte hartuko ote duen galdetuta, hauxe adierazi du: "Elkarteko batzuk lanean egongo gara eta ezinezkoa izango dugu, baina, hala ere, jendeak parte hartuko duelakoan nago".

Eta Abasolok ere domekan Kurtzebarri bertaratzen diren guztiak animatu gura ditu, Areantzakoek erronka ipini baitiote euren buruari: "Duela 25 urte igo ginen aurreneko auzokook Kurtzebarri, eta, zerbait berezia egin nahian, erronka hartu dugu gure gain: baietz 100 lagun jaitsi ipur gainean labanderan. Parte hartu gura izanez gero, 12:15ean Zaraixolatik Hirupagoetara bidea egigo dugu, 180 metroan. Praka luzeak ekarri, eta ongi pasa!".

Aspaldiko ohitura jarraituz

Azken urteetan 10-15 lagunek hartu izan dute parte Kurtzebarri egunean mendian behera. "Jolas antzean edo mendian behera azkarrena izan guran-edo hasi zen ohitura, zehatz ez dakit. Baina gure aurrekoek ere egiten zuten". Abasolok aditzera eman duenez, duela 50-60 urte ere egiten zen; On Simon apaizaren garaian, esaterako, auzoko mutikoak haren sotana gainean jarri eta denak batera jaisten ziren".

Agorreko Andramaixetan murgilduko da Areantza gaur

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Gaurtik domekara bitartean Agorreko Andramaixak ospatuko dituzte Areantzako. Kanpai joaldiak iragarriko du jaien hasiera, 19:30ean. Segidan, 20:00etan hasita eta ohiturari jarraituta, tantaia igoko dute Iturriko erro-maran. "Afaltzera elkartzen garenon artetik, taldetxo batek igotzen du, eta ondoren, Martin Kabarrixa zintzilikatzen dugu bertatik eta domekara arte bertan egoten da, jaiak amaitu arte". Eta egubakoitza agurtzeko, auzo-afariaren ostean, Iñigorekin dantzaldia egingo dute.

Zapatua, jolasteko eguna

Txistulariek izango dute zapatuan jendea iratzartzeko ardurua dianarekin, 10:30ean, eta

egunean zehar hainbat ekitaldi izango dira. Eguerdian meza esango dute, eta Basotxoko kantuzaleek lagundutako zeremonia izango da. Eta eliza kanpoaldean, meza osterako luncha prestatuko dute antolatzaileek. "Trikitiaz girotua egongo da eta bertako produktuak jarriko ditugu jateko: txorizoa, sagardoa, gazta, tortillak, eta abar".

Jolasen ordua izango da ondoren: 28. jinkana egingo dute, 13:45ean. Arratsaldean, Ariantzako jolasak, eliza ondoan, 17:45ean. "Paperezko hegazkinen lehiaketa egingo dugu, esaterako; sari polita: Kurtzebarritik parapentean botatzea".

Domekan emango diete amaiera Agorreko Andramaixei, 14:00etan Martin Kabarrixa pertsonaia zuhaitzetik jaitsita.

Hilaren 20ra arte aurkeztu ahal izango dira lanak 'Ura eta erreka Deba ibarrean' argazki lehiaketara

Ura eta erreka Deba ibarrean argazki lehiaketa antolatu du Mankomunitateak; hilaren 20ra arte aurkez daitezke lanak. Hiru kategoria egongo dira: 14 urtera artekoa; 14-65 urte bitartekoa; eta 65 urtetik gorakoa. Jasotakoetatik, 30 aukeratu eta erakusketara antolatuko dute; herritarren botoek hautatuko dituzte irabazleak. Lanak argazkilehiaketa@debagoiena.com helbidera bidali behar dira.

'Ratas' lanak egunean irekiko du iraileko antzerki egitaraua

Atakados Teatro taldearen emanaldia Zaraian izango da, 19:00etan hasita

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Irailaren 12an, egunean, Atakados Teatro taldeak bere egingo du Zaraia aretoko oholza eta *Ratas* izeneko antzezlana ekarriko du Aretxabaletera; 19:00etan hasiko da emanaldia.

Beldurretan oinarrituta

Galdera baten dauka abiapuntua *Ratas*-ek: ze gertatuko litzateke egun baten, inongo arrazoi argirik gabe, gure sen primarioen alderdi beltzenak aterazteko, lau hormaren artean, kaiola baten mundutik isolatuta, animalien antzera esnatuko bagina?

Hori horrela, hiru pertsonaia azalduko dira Zaraiara bertaratzen den publikoaren aurrean. Hiru emakume, "munduko gizon-emakume guztien zertzelada txiki bat", adierazi dute 2007an sortu zen Atakados konpainiako kideek.

Oro har, beldurrei aurrez aurre begiratu barik munduan dabilzan pertsonaia ezagutuko dituzte ikusleek Zaraiara datorren egunean. Baina, beldurrak beldur, umorerik ez da falta izango Bilboko taldearen eskutik kultura etxean hilaren 12an.



Ratas antzezlako protagonistak. | ATAKADOS TEATRO

Haurrentzako emanaldiak

Eguenekoak, baina, ez da Aretxabaletan ikusi ahal izango den antzezlana bakarrik izango, irailean zehar beste bi emanaldirekin gozatu ahal izango baitute; kasu horietan, etxeko gaztetxoek.

Izan ere, umeentzako saioa izango da hilaren 15ean ikusi ahal izango dena. Kukubiltxo taldearen eskutik, *Leihoak mundura. Lore eta Pupu* lanak fantasiako mundura eramango ditu ikusleak. Bi pailazo txikiak, mundua deskubritzeko gogoz eta

Lagun txakurra bidaiari-lagun dutela, ipuinak kontatuko dituzte, 17:00etan hasita.

Azkenik, irailaren 22an, ordu berean, pailazokeriak nagusituko dira. Hala, Gari, Kontxo eta Joselontxok *Kontxo*, *Kontxo* ikuskizunaren bitartez irri bat marraztuko dute ikusle bakoitzaren aurpegietan.

Ordubeteko saioan esketxak eskainiko dituzte, euren esanetan: "Zirkuan ikusi ohi diren pailazokeriak", baina ukitu modernoekin.

ELGETA

103 neska-mutiko hartuko ditu eskolak ikasturte berrian

Kanpoko jolastokia guztiz erabilgarri dago; barrukoan ere lanak egin dituzte

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Astelehenean emango diote hasiera 2013-2014 ikasturteari Elgetako Herri Eskolan. Lehenengo egunean 89 neska-mutiko espero dituzte eskolan. Egun bat geroago, martitzenean, hasiko dira aurten 2 urteko gelan sartzen diren 14 haurrak.

Umeek jardunaldi erdia egingo dute astelehenean eta martitzenean: Haur Hezkuntzakoek 09:00etatik 12:30era eta Lehen Hezkuntzakoek 09:00etatik 13:00etara. Gogoan izan behar da jantoki zerbitzua eskainiko duela eskolak hasieratik; haur horiek 14:00etan irtengo dira.

Zazpi unitate edo gela izango ditu aurten eskolak. 2 urteko gelan 14 ume izango dira; 3 eta 4 urteko gelan —elkartuta— 19 ume; 5 urteko gelan 12, lehenengo eta bigarren mailetan —elkartuta— 17 ume; hirugarren mailan 12; laugarren mailan 11 ume; eta bosgarren eta seigarren mailetan —elkartuta— 18 ume.

Lan garrantzitsuak

Jolastoki berri-berria izango dute eskolako neska-mutikoek ikasturte honetan; besteak beste, eskolaren aurreko aldean egin



Lanak amaituta, itxura berria du eskola inguruak. | L.Z.

dako frontoi zaharra eta harmailak. Udalak inaugurazioa iragarri du hilaren 13rako. Eskolako umeak izango dira protagonista.

Barruko jolastokian ere lanak egin ditu Udalak. Arazoak zeuden euri-urarekin eta hoditeriak garbitu eta lurra berritu dute.

Sei erabiltzaile ditu haurreskolak

Atzo, eguna, zabaldu zituen ateak haurreskolak. Sei umerekin hasi dute ikasturte berria, eta han ere hobekuntza lanak egin ditu Udalak. Kanpoko jolastokian segurtasuneko lurra bota dute, eta jolastokiaren eta belardiaren artean itxitura ipini dute. Bada, haurren aulkiak uzteko tokia hobeto babestea falta da. Urrian zabalduko dute atzera ere izen-emate epea haurreskolan.

Ikasturteko hezkuntza eta kirol jarduerak ere gertu

Zaintza-ludotekak hilaren 11n zabalduko ditu ateak eta kirol jarduerak urrian hasiko dira

L.Z. | ELGETA

Heldu indarrarekin kurtsu berria lelopean, Udalak 2013-2014 ikasturterako hezkuntza eta kirol jardueren berri eman du.

Aurreko ikasturtearekin alderatuta, eskaintzan, orokorrean, ez da aldaketa handirik. Kirol jardueretan, yoga, tai txia, erretiratuendako gimnasia, mantentze-gap, spinninga, umeendako eskola kirola eta karatea eskaintzen dira. Jarduera horietan izena emateko epea zabalik dago. Uda-

lak jakinarazi du spinningeko taldean lehentasuna izango dute la aurreko ikasturtea amaitu zutenek, betiere irailaren 16a baino lehen izena ematen badute.

Bestalde, jarduera guztietan izena ematearekin batera, hila-bete bateko kuota ordaindu behar da. Ikasturtean zehar jarduera lagatzen duenak galdu egingo du kuota hori. Aldiz, ikasturtea bukatzen dutenei ez zaie ekaineko kuota kobratuko. Jardueren ordutegiak eta kuotak udal web-

gunean dituzue ikusgai: www.elgeta.org.

Gogoratu behar da frontoia, sauna, squash pista eta gimnasioa osorik alokatzeko aukera ere eskaintzen duela Udalak.

Ludoteka eta gaztelekua

Hezkuntza jardueren kasuan, zabalik dago zaintza-ludotekan eta gaztelekuan izena emateko epea. Zaintza-ludoteka zerbitzua hilaren 11n zabalduko da. Ekainera arte, astelehenetik barikura bitartean eskainiko du Udalak. Prezioak dira 90 euro hileko zaintzaren kasuan eta 30 euro hileko ludotekaren kasuan. Gaztelekua urritik martxora egongo da zabalik zapatuetan eta domeketan, 16:00etatik 20:00etara. Prezioa da 25 euro hileko.

Hitzorduz beteta dator iraila: Vespa eta Lambretten topaketa, Sagardo Eguna, baserritarren azoka...

Irailarekin batera hemen ditugu ohiko hitzorduak. Vespa eta Lambretta motorren topaketa hilaren 15ean egingo dute. Sagardo Eguna eta tortilla lehiaketa irailaren 21erako iragarri ditu gaztetxeak. Inguruko baserritarren produktuekin egiten den azoka, berriz, hilaren 28an izango da aurten. Egun horretan, txorimalo lehiaketa eta Intxortako igoera jokatuko dira.

Erretiratuek Logroñon eta Guardian egun-pasa egiteko aukera izango dute hilaren 21ean

Elgetatik 08:30ean abiatuta, Logroñoko azoka ezagutzeko aukera emango du Xalbadorpe erretiratuen elkarteak hileko hirugarren zapatuan. Bazkaria Guardia herriko La Huerta Vieja izeneko jatetxean egingo dute. Egun osoko irteera izango da eta prezioa 30 euro da. Interesatuak hilaren 14an eta 15ean eman behar dute izena. Xalbadorpeko arduradunak Ozkarbi elkartean izango dira egun bietan, 11:00etatik 12:00etara.

Eraikinen Azterketa Teknikoa egiteko aurrekontu bateratuan parte hartzeko izena eman behar da

1901ekoak baino zaharragoak diren eraikinek Eraikinen Azterketa Teknikoa pasa beharko dute urtea amaitu aurretik. Udalak aurrekontu bateratuan parte hartzeko interesa duten etxe-jabeendako irailaren 15era arte epea zabaldu zuen udaletxean izena emateko. Informazio gehiago behar izanez gero, herritarrek Suradesako teknikari Miren Argi Zeziagarengana jo dezakete. Udaletxean izaten da, astelehenetan, 09:00etatik 10:00etara.



33 familia auzo-konposta egiten

Martxan dira auzo-konposta egiteko hiru gune berriak. Izena eman zuten familiek arautegiaren eta funtzionamenduaren berri izan zuten Udalak Elgeta Zero Zabor taldeko kideen laguntzarekin eguaztenean egindako ikastaroan. Ontziak eta giltzak ere jaso zituzten, eta, saio amaieran, herritar bakoitzak konposta non egitea dagokion ikusi zuen. Interesatu gehiago balego, udaletxean eman behar da izena.

LEINTZ GATZAGA

Instalazioak prest daude gaur herriko jaiak hasteko

Udalaren ekipamenduak urriak direnez, ondoko herrien laguntza jaso du muntaketetarako

IURE EIZAGIRRE | LEINTZ GATZAGA

Gaur arratsaldean hasiko diren jaiak aurretiko prestaketa lana eskatzen dute; izan ere, beharrezkoa da jaietan hainbeste jende bilduko duten agertoki eta ingu-

ruak behar bezala txukuntzea. Atzo hasi ziren udal langileak kontzertuak eta bestelako ekintzak hartuko dituen agertokia muntatzen eta gaur gauean hartuko dituen lehen emanaldietarako

prest dago. Ohi bezala, plazan jarri dute agertokia, hori baita jaien erdigunea.

Ondoko udalen laguntza

Herri txikia izanik, Leintz Gatzagako Udalaren azpiegiturak urriak dira jaiak bere kabuz aurre egiteko eta ondoko herrietako udalen laguntza jaso ohi du.

Aurten ere izan du inguruko udalen kolaborazioa eta Aretxabaletako Udalak utzi dio, adibidez, asteburuko kontzertuak hartuko dituen agertokia.

Oraingoan, kontzertuetarako agertokia eta txosna bakarrik muntatu dituzte, baina gainerako azpiegiturak beharren arabera jarriko dituzte; herri afariko mahaia eta aulkiak, adibidez.

Aretxabaletako eta Eskoriaitzako udalek utzi ohi dituzte jaietarako beharrezko azpiegiturak. Gainera, bertako langileek muntaketan laguntzen dute.

Batzuek gozatzeko besteek lan egitea ezinbesteko denez jaietan, haiei gauzak erraztea denen ardura izango da.

Medikua irailaren 25etik aurrera izango da berriro herrian

Oporrak direla eta, medikuak ez du herrian zerbitzurik eskaini abuztuaren zehar. Irailaren hasierarekin, zenbait zerbitzu publiko bere horretara itzuli dira, baina ez medikuarena. Irailaren 25ean itzuliko da kontsultara, ohi bezala, 08:00etan. Praktikan teak dagoeneko hartzen ditu gaixoak, martitzenero.



Umeek ederto pasa dute egunotan Torrebasen egin duten parke berrian. | MIRIAN BITERI

Umeek jolasparke berria dute gertu Torrebasen

Mugikortasun Astean inauguratuko badute ere, dagoeneko erabilgarri dago

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Udalak 9 urtetik gorako neska-mutikoei zuzendutako jolas-abentura parke berria egin du Torrebaso pasealekuan. Askotariko jarduerak praktikatu ahal dituzte gaztetxoek han; esaterako, tirolinatik botatzeko aukera dute, eta, lurra ukitu barik, enbor mugikorretatik ibilita zirkuitua egin.

Baina Torrebasokoa ez da Eskoriatzako jolasparkeetan egin den lan bakarra. Liburutegi ondo-ko ziburuak ere atontzen ibili dira abuztuan, eta baita berriak jarri ere. Bi hobekuntza horiek guraso talde bati egindako galdetegiaren ondotik dator; herriak dituen beharrak identifikatzeko

Liburutegiko ziburuak apurtuta

Apurketak egin dituzte ostera herriko hiri altzarietan. Udal Liburutegi ondoan dagoen jolasparkean kalteak eragin zituzten domeka gauean. Hain justu, ziburu zilindrikoa erre egin zuten, eta mahai bat tokiz aldatu. Herriko guraso talde batekin adostuta, abuztuan parke hori berri egin zuen Udalak: aurretik zeuden ziburuak margotu zituzten, eta pare bat berri jarri. Gutxi iraun dute horiek txukun.



Ziburu zilindrikoaren errautsak. | MIRIAN BITERI

eta konpontzeko asmoa zuen horrek. Obra eta Zerbitzuetako teknikari Eli Jauregik azaldu du galdetegi horretan, besteak beste, 9 urtetik gorako umeei zuzendutako jolasparke ez dagoela gogorarazi dutela gurasoek. Proposamena eta herrian dauden eremuak aztertuta, Torrebasen egitea erabaki dute.

Bidegorria ondoan

Kokalekuaren arrazoia ere jakinarazi du Jauregik: "Gune irekia da, autorik gabekoa eta gazteak bidegorritik oso eroso etor daitezke bizikletan. Eskoriatzako umeez gain, Aretxabaletakoak ere joan daitezke gainera". Eta horrelaxe da. Parkea amaituta uzteko hainbat kontutxo falta badira ere, dagoeneko erabilgarri dago, eta haurrak hasi dira joaten.

Erabiltzaileak oso pozik daude gune berriarekin. Ederlan ondoan egotearekin oso ados ez badago ere, aretxabaletar batek esan digu oso gune lasaia dela, eta instalazioak oso ondo daudela. Gainerakoetan kritika onak baino ez ditugu entzun.

Esan bezala, amaitu barik dago oraindik gunea; tirolina azpian, esaterako, harea bota barik dago oraindik. Egunotan amaituko dituzte lan horiek, irail erdialdean egingo den Mugikortasun Astean inauguratzeko asmoa du-eta Udalak.

Boluntarioak behar dituzte Atxorrotz Gaztelu Jairako

M.B. | ESKORIATZA

Irailaren 14an Atxorrotzen egingo den Gaztelu Jaiaren prestaketa lanetan murgilduta dabilta Eskoriatzan. Asteon jakinarazi dute egun horretarako boluntarioak behar dituztela, eta interesa dutenendako batzarra deitu dute eguaztenerako, hilak 11, 19:00etan, Ibarraundin.

Egitarau zabalera gertatu dute Atxorrotz Gaztelu Jaiarako: 10:00etan, herriko txistulariek jaialdiari hasiera emango diote kalejira eginda, eta, ordu erdi geroago, Atxorrotzera igotzeko hitzordua jarri dute, plazan. 12:00etan, ekitaldi nagusia hasiko da goian: besteak beste, bertsolariak, hizlariak, eta dantzariak izango dira. Jarraian, industen gaineko bisita gidatua hasiko da, eta horren ostean, Eñaut Elorrietak kontzertu akustikoa eskainiko du. Bazkaldu ostean. Potx eta Motxek pailazoen guztien irria eragingo dute. Muskarik ere ez da falta izango: Hesian eta Fiachras taldeek joko dute. Eguna amaitzeko, Pentatonix Folkek joko du herrian.

Zaharren egoitza egokitzeko baimena heldu da

M.B. | ESKORIATZA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuak, foru agindu baten bidez, behin betiko baimena eman dio Jose Arana zaharren egoitzako patronatuari erakina egoki dezan. Proiektua dagoeneko egin dute, eta, egokitzapen obrak egin ostean, herriko egoitzak 33 lagunentzako tokia izango du: bederatzik lagunendako banakako logelak egokituko dituzte eta gainerako 13 gelak bi lagunendako izango dira.

Patronatuak jakinarazi gura izan du albistea "ezin hobea" dela, eta, horren harira, gogorarazi du Garagardoaren festaren bigarren edizioaren "bezperetan" heldu dela. Irailaren 19tik 22ra bitartean egingo dute zaharren egoitza diruz laguntzea helburu duen festa.

Egokitzapen planerako

Azken horren bueltan, egoitzako patronatutik azaldu dute jaialdia antolatzeke prestaketak aurrera doazela, eta horretan jasoko den dirua Diputazioan onartutako egokitzapen plana betetzeko zuzenean erabiliko dela.

Beñat Herce alkatea: "Ez dut dimititzeko asmorik"

Herrian dauden zurrumurruei erantzun gura izan die

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako alkate Beñat Herce aspalditik herrian dabilen zurrumurruari erantzun gura izan dio egunotan: "Apiriletik Eskoriatzan zurrumurrua dabil dimititu behar dudanez. Hasieran ez nion garrantzirik eman, garai hartan Itziar Martinez zinegotzi ohiak kargua utzi zuen eta norbait nahastuko ote zela pentsatu nuen". Maiatzeko ohiko osoko bilkuran ere, galderen eta eskaeren txandan, horren gainean galdetu zioten oposizio-ko udal ordezkariak. Hilabeteak

pasa dira, baina zurrumurruek herrian dihardu.

Inoiz ez

Hori dela eta, alkateak bere asmoa zein den argi eta garbi azaldu gura izan du, honakoa jakinarazita: "Inoiz ez dut asmorik eduki dimititzeko, burutik pasa ere ez zait egin; are gutxiago, momentu honetan, agintaldiko hainbat proiektu laster argia ikusiko dutenean. Hortaz, baten batek oraindik zalantza jarraitzen badu, jakin dezala gezurra borbila dela kalean dabilena".

Zabalik dago Erretiratuen Egunerako izen-ematea

M.B. | ESKORIATZA

Urtero moduan, udako oporren ostean herriko erretiratuei omenaldia egingo diete Eskoriatzan. Aurten, irailaren 29an izango da, eta horretan parte hartu ahal izateko izen-ematea dagoeneko zabalik dago. Interesatuek hilaren 24ra arte eman dezakete izena, martitzenetan eta egunetan, 11:00etatik 12:30era, Olazar erretiratuen elkartearen egoitzan. Izena ematearekin batera sei euro ordaindu beharko dira.

Egitaraua ez da aldatu, azken urtekoaren modukoa da: 11:00etatik 12:30era salda

banatuko dute erretiratuen artean; horrekin amaitzean, meza izango dute parrokan. Eta handik irtetean bazkaria izango dute gertu. Betiko moduan, pilotalekuan egingo dute.

Opariak eta dantzaldia

Bazkaldu ostean, herriko bi erretiratu omenduko dituzte; opariak ere emango dizkiete. Horrez gain, dantza egiteko aukera izango dute herriko nagusiek. Gustuko duten eguna da hori; urtero, 200 bat lagun elkartzen dira-eta horretan.



Udal gimnasioko erabiltzaileak spinning ikastaro batean. | GOIENA

Saio eta abonamendu gutxiago udal gimnasioan

Ordu gutxiago baina jendetsuagoen aldeko apustua egin du gimnasioak, dinamismoa sortu eta instalazioetan mugimendu handiagoa izateko asmoz

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Atsedean hilabeteen ostean, erronka berriekin hasi ohi du jendeak ikasturte berria. Helburuen artean dago kirola praktikatzuz bizitza osasuntsuagoa izatea. Eta horretarako lehen pausoa gimnasioan izena ematea da.

Antzuolako gimnasioa pixkanaka ari da hasiera ematen ikasturte berriari, aurten lehen aldiz, iraileko lehen egunekin batera. Aste honetan spinningeko eta body tonoko lehen saioak egin dituzte, eta, partaide kopurua kontuan hartuta, nabari da jendea oraindik egunerokotasunerantz itzulzeke dagoela.

Ikasturte berriari dagokionez, zenbait aldaketa izango dira saioetan. Xabi Azkarate gimnasioko kudeatzaileak azaldu duenez, hainbat ordu kendu egingo dituzte: "Uste dugu hobe dela jende gehiago egotea taldeetan, talde asko jende gutxiarekin edukitzea baino. Gure asmoetako bat da dinamismoa sortzea eta bai fitness gelan eta bai klaseetan mugimendu handiagoa egotea". Horrela,

fitness gelarako programa berri batzuk sortuko dituzte, aipatutako dinamismoa sortu eta herritarrek gelari berari etekin handiagoa ateratzeko asmotan.

Fitness eskaintza ez ezik, ikastaroena ere handituko da. Orain arte bezala, spinning, pilates eta mantentze gimnasia eskainiko dira, baina baita azkenaldian modan dagoen body tonoa ere. "Munduan arrakasta handiena duen ekintzetako bat da body tonoa, erabiltzaile asko ditu eta pentsatu dugu oso ekintza ona dela, aberasgarria eta osoa". Martitzen eta eguen arratsaldeetan eta bariku goizetan emango da ikastaro berria gimnasioan.

Ate irekiak

Oraindik hasteko dauden kirol ikastaroak irailaren 16an jarriko dira martxan. Horren aurretik, ordea, gimnasioaren eskaintza bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute antzuolarrek; izan ere, ate irekiak egingo dituzte datorren astean. Azkarateren esanetan, gimnasioko ikastaroe-

tan progresio bat jarraitzen dutela erakusteko balio du aste horrek, "batez ere pilates eta body tonoa saioetan". Eta bertaratzen direnek ikusi bakarrik ez, hasita dauden ikastaroetan parte hartu ere ahal izango dute.

Prezio igoera

Lau urtez prezioak bere horretan mantendu ondoren, ikasturte berrian %3 inguru garestituko dira abonamenduak. Eta orain arteko abonamenduak bira murriztuko dira: ikasturte osoa eta hilabetekakoa. Gainera, Debagoienerako Kirol Txartela dutenek abendua bitartean gimnasioko abonatu izateko aukera dute 19,5 euroren truke. Instalazioak erabiltzeko eta deskontuez baliatzeko aukera izango dute.

Udal gimnasioak dagoeneko zabalik du matrikulazio epea eta antzuolarrek bertan bete ditzakete orriak. 943 76 66 61 telefono zenbakira deituta edo e-postaz antzuolakogimnasioa@gmail.com helbidera idatzita ere egin daiteke izen-ematea.

Helduendako heziketa eskaintzari eutsiko diote

Eskulan ikastaroa ere mantenduko da eta aurten hurrek euren taldea osatuko dute

I.E. | ANTZUOLA

Hurrekin batera, helduak klaseetara itzultzeko hilabetea da iraila eta Helduentzako Heziketa Iraunkorreko zentroak hiru ikastaro eskainiko ditu aurten Antzuolan.

Iazko eskaintzari eutsiko diote aurten ere eta antzuolarrek ingeleza, informatika eta hezkuntza orokorra ikasteko aukera izango dute. Ingeles klaseak martitzen eta eguenetan emango dira, baita informatikakoak ere. Hezkuntza orokorrekoak, berriz, astelehenean egunera izango dira.

Datorren egubakoitzean, irailaren 13an, hasiko da helduendako ikasturte berria. Eta hiru ikastaro horietakoren bat egin nahi dutenek egun hori baino lehen egin beharko dute izen-ematea udaletxeko idazka-

ritzan. Matrikula 24 euro ordaindu beharko dute.

Eskulanak hurrendako

Aurreko ikasturtean helduendako eskulan ikastaroa eskaini zuen Udalak, eta euren talderik ez zegoenez, bi ume ere aritu ziren. Aurten hurren eskaria igo egin da eta taldea osatzea erabaki dute.

Haiek ere eguenetan izango dute klasea, 16:45etik 17:45era, eta nahi duten eratako eskulanak egingo dituzte: koadroak margotu, objektuak zaharberritu, egurra margotu...

Irailaren 26an hasiko dituzte klaseak, Edurne Uribealgok gidatuta. Izena emateko tartea, berriz, irailaren 20an amaituko da eta udaletxeko telefono zenbakian (943 766 246) edo haren webgunean egin daiteke.



ANELKAR

Elkartasun Festa arrakastatsua

Anelkarrek joan den ostiralean ospatu zuen urteroko Elkartasun Festa. Taldeak balorazio positiboa egin du, herritarrek egindako 35-40 tortillak gastatu zirelako eta, 200dik gora pertsona bertaratuta, jendearen parte-hartzea ona izan zelako. Salmentatik eta ekarpenetatik 750 euro eskuratuko dituztela kalkulatu dute, eta, ohi bezala, Afrikako proiektuetara bideratuko dute dirua.


Funtzionamenduari buruzko gogoeta egingo dute gaur Gaztetxean

Duela urtebete inauguratu zuten antzuolarrek gaztetxe berria eta funtzionamendu ona bermatzeko zenbait talde sortu zituzten: Mantentze, Komunikazio, Elkartruke, Parte-hartze eta Ikus-entzunezko taldeak. Horien balorazioa egingo dute gaur, 10:00etan hasita, talde horietako kideek zein euren parte hartu ez dutenek.

Eguaztena jaietako argazki lehiaketako azken eguna izango da

Herriko jaiak urrun geratu dira, baina oraindik martxan dago argazki lehiaketa. Lanak aurkezteko epea eguaztenean amaituko da eta udaletxera eraman behar dira argazkiak. Antzuolarrek soilik har dezakete parte, eta argazkilaritza arloko eta kultur batzordeko kideek osatuko dute epaimahaia. 150 euroko saria dago.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJKA HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Ukrainatik eta Sahararik gurera, etxean moduan senti daitezzen

Marynak, Illyak, Nadiyah eta Nafisak Aramaion pasa dute uda, bertako hiru sendiren etxeetan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aurten ere gonbidatu bereziak izan ditugu Aramaion. Maryna, Illya, Nadiya eta Nafisa dute izena eta euren jaioterriko errealtate gordina atzean utzi zuten ekain amaieran uda gurean igarotzeko. Lehen hiruak Ukrainatik etorri dira eta Nafisa, berriz, Sahararik.

Maryna (10 urte) eta Illia (7) lehenengoz izan dira Aramaion, Txernobilen Lagunak elkarteari esker. Jesus Garitaonandia eta Blanca Mendialduaren etxean egon dira: "Aukera zegoela esan ziguten eta beste urte batzuetan baino librexeago geundela pentsatuta, proba modura, animatu egin ginen. Oso esperientzia polita izan da". Lehen urtea izan denez, Aramaio eta inguruak ezagutzen nahikoa izan dute: "Lehen egunetan hizkuntza oztupo bat izan arren, azkeneko dena ulertzen zuten. Hasieran ez zeuden oso motibatuta euskara ikasteko baina udalekuean egon zirenean konturatu ziren hemen euskaraz jakitea beharrezkoa dela". Berriro elkartzeko gogoekin geratu

dira: "Agurtzerakoan berriro egoteko hamar hilabete bakarrik falta zirela esan ziguten".

Ukrainatik etorri da Nadiya (13) ere, iaz moduan, Etor Arregi eta Mirari Kortaren etxera, Azkoagara: "Aurtengoa bigarren urtea izan denez, dena errazagoa izan da. Guregan konfiantza handiagoa zuen hasieratik eta guztiok ibili gara gusturago". Auzoko zein herriko jaietan eta Txatxilipurdik antolatzen dituen Orioko udalekuean ederto ibili ostein, Pirinioetan ibili ziren. Iaz baino gusturago ibili direnez, agurra ere gogorragoa izan da: "Pena handiarekin joan da. Alde batetik pozik, gurasoekin egongo delako. Baina hango errealtatea hain da gogorra eta hain gustura ibili da hemen, gogorra izan zen agurtzea", esan digu Arregik. Ukrainatik datozen haurren errealtateak askotarikoak dira. Batzuk familia egituratuetatik datoz, hiritik. Beste batzuek, baina, landa eremuetan bizi direnak bereziki, egoera zailagoak bizi dituzte. Azken horiek Txernobildik gertuago daude, baldintza okerra-



Ukrainako Maryna eta Illya, Garitaonandia eta Mendialduarekin. | BLANCA MENDIALDUA



Nadiya, Pirinioetan. | ETOR ARREGI



Larrañaga eta Sillero familia Nafisarekin —erdian—, azken egunean. | IÑAKI LARRAÑAGA

goetan: "Hori da Nadiyahen kasua. Etxea oso xumea eta baldintzak oso gogorrak".

Oporrak Bakean ekimenari esker, bestalde, Sahararik Nafisa (11) etorri da Gureiara, Iñaki Larrañagaren eta Yolanda Silleroen etxera. Familia iaztik eza gutzen zuen, eta "oso gustura" ibili da: "Igerilekura, hondartzara, artzain-txakur txapelketara, azoketara... denetik egin dugu. Oso gustura ibili gara, hemen inguruan". Agurra "oso gogorra" egiten dela esan digu Larrañagak: "Bi hilabete egon da gurekin eta beste alaba bat bezala izan da".

Udala, ahal duenean laguntzen

Udalak, familia horien jarrera txalotzeaz gain, ahal izan duen neurrian lagundu die. Ukrainatik etorri direnei 30 euroko bonua eman zieten eskolako materialean gastatzeko.

Nafisaren kasuan, berriz, Udalak ordaindu du bidaia, Oporrak Bakean ekimenaren barruan dagoelako. Aurrerantzean Ukrainatik datozenekin laguntza gehiago emateko asmoa dute.

Ur barik geratu zen Ibarra abuztuaren 18an, ordubetez

J.B. | ARAMAIO

Ur sarean arazoak izan ziren abuztuan. Hilaren 18an, Etxaguengo iturburuan izandako arazo tekniko baten ondorioz, ur barik geratu ziren ordubetez Ibarako zenbait etxe. Udal langileen arabera, Ibargoian izan ziren mozketak luzeak. Ur depositua husteratzen doanean abisua ematen duen alarmaren berri izan bezain

pronto —telefono seinale eskasak langileek alarmaren berri izatea atzeratu zuen— Udaleko langileek "brehala" konpondu zuten arazoa: "Lau ordu inguruko autonomia duten beste depositu bat dugu halako kasuetarako", adierazi du langileetako batek. Langile horrek salatu gura izan duenez, "ordu erdi baino gehiago" behar izan zuen larrialdietarako ibilgailua

garajetik ateratzeko, atean gaizki aparkatuta zegoen auto bategatik: "Ez da lehen aldia", dio.

Era berean, Untzilla, Suña eta Muru auzoetarako ur sarean matxura bat izan zen. Deposituan haizea sartu eta ur galerak eragin zituen, minutuko 30 litrorako helteraino. Diputazioaren baimena jaso ostean, astebete eman zuten matxura konpontzen.

Iraileko lehen domekan, jaia Marixekan

Iraileko lehen domekako ohiturari eutsiz, egun-pasa ederra egin dute aurten ere Marixekan. 1986an ermita berreraiki zenetik, elkarteak bazkideak urtero elkartzen dira: meza, dantza, bazkaria eta Gorritiren animaliak —argazkian— izan ziren protagonista.



MIRIAN BITERI

Formatu txikiko musika kontzertuak ikusteko aukera Sastiñan, iraileko egubakoitzetan

Udaleko Kultura Sailak formatu txikiko zuzeneko kontzertuak antolatu ditu irailerako, egubakoitzero. Gaur Jazz 4 Joy taldeak irekiko du zikloa, swing, jazz eta bossa doinuekin. Hilaren 13an Deu H' Hi Do taldeak joko du, hilaren 20an Angel Unzu gitarra-joleak eta hilaren 27an, azkenik, Antton Aranburuk. Kontzertu guztiak 20:00etan hasiko dira.

Txirritolak antolatzen duen postal lehiaketan parte hartzeko aukera dago irailaren 15era arte

Txirritola elkartearen postal lehiaketan parte hartzeko aukera dago oraindik, hilaren 15era arte. Posta arruntez bidali beharko dira postalak, honako helbidera: Txirritola euskara elkarte, Kulturetxea, 01160, Aramaio (Araba). Postalak deskribapen labur bat izan beharko du eta Txirritolako ordezkariak originaltasuna eta euskararen erabilera baloratuko dute. Postal onenak 70 euroko bonua jasoko du eta bigarrenak, berriz, 30 eurokoa.

Baso-lanetan ari zela zuhaitz bat gainera erorita, 47 urteko gizonetzko bat hil zen Oletan

Abuztuaren 27an gertatu zen ezbeharra, Oletako mendi baten. Zuhaitz bat erori zen langilearen gainean, eta kolpe handia eman zion. Larrialdi zerbitzuen arabera, langilea gune aldapsu batean konortetik gabe geratu zen. Ertzaintzaren hainbat patruila, bi ambulanzia eta suhiltzaileak ezbeharra gertatu zen tokira berehala irisi arren, medikuek ezin izan zuten ezer egin. 47 urteko gizonetzkoa zen hildakoa, Ubidekoa (Bizkaia).

MENDIKO BIZIKLETA

Markel Uriarte | Orbea Meribel Enduro Crew taldeko kidea

"Tourmalet gurrpil bakarraren gainean igo nahi dut datorren urtean"

- Orbea Meribel Enduroko riderrak hainbat lasterketa irabazi ditu aurten
- Iraileko azken asteburuan Aretxabaletako martxa antolatzen ibiliko da

XABIER URZELAI | ARRASATE

Markel Uriarte aretxabaletarrak talde ofizial baten babesaz korritu ahal izan du aurten, Orbea Meribel Enduro Crew taldeaz. Baina bizikleta gaineko jarduna ez du lasterketara mugatzen, irailako azken asteburuan egin-go duten Aretxabaletako mendiko bizikleta martxa antolatzen dabil-eta buru-belarri. Eta 2014-rako ere badu erronka, izenburuan irakurri duzue.

Zelan joan da denboraldia?

Ondo, gustura ibili naiz. Oraindik hainbat lasterketa geratzen zaizkit, baina gehienak korritu ditut. Asturiasko Openean bi lasterketa irabazi nituen; izan ere, udaberrian lokatz handia izan dugu, eta ni lokatzetan ondo

moldatzen naiz. Eta beste hainbat lasterketatan ere podiumera igo gara. Espainiako Openean, ostera, asteburuan Galizian egingo dute azken lasterketa. Denboraldian zehar lehen hiru sailkatuen artean egon naiz, baina azken lasterketan ez nuen batere zorrikeria izan, gurrpila zulatu lehenengo, ondoren gurrpila bera apurtu... Eta podiumean egoteko aukera galdu dudanez, ez dut

"Tourmalet igotzeko bi hilabetez entrenatu beharko dut; gogorra da"

Galiziaraino joateko asmorik; Pirinioetara joateko aprobetxatuko dut, han beste lasterketa batzuk daude-eta.

Orbeak ateratako taldean egoteak erraztasun handiak emango dizkizue, baina zuen partetik ere jarri egin behar.

Bai. Batzuek usteko dute profesionalak-edo garela, baina ez, ez... Bidaia ere guk ordaintzen ditugu. Hori bai, Orbeak materiala uzten digu, material onena, eta baliabide asko. Gainera, talde bateko partaide gara, eta hori ere polita da... Oso esperientzia ona izaten ari da. Esaterako, taldeak World Series-eta korritzeko lizentzia du; hau da, munduko lasterketa onenetan egon gaitzeko, eta hori gauza ederra



Markel Uriarte, Orbea Meribel Enduro taldeko txirrindularia. | ARITZ GORDO

Ikus itzazu argazkiak, inon baino lehenago Asteleheneko Goienan!

UDAKO ARGAZKIEN IX. GOIENA LEHIAKETA
Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.net/argazkiakBaita hemen ere: [f udakoargazkiak](#) [t udakoargazkiak](#)MIKEL SEDANO RUEDA.
2012ko Sari Nagusiaren irabazlea.MIREIA AGUIRRE.
2012ko bigarren sarirekin irabazlea.GAIZKA UNTZUETA.
2012ko bigarren sarirekin irabazlea.

Har ezazu parte!

Oinarriak*

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 31etik irailaren 20ra (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinak bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otarora Lizentziaduna 31, Arrasate. ARETXABALETAKO: Basabe poligonoa E05, Aretxabaletan.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 7an jakingo dugu, asteleheneko Goiena paperean.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela: **Twitter bidez**, [@udakoargazkiak](#) helbideari aipamena eginda argazkia bidalita, eta argazkiaren deskribapena eginda. **Facebook bidez**, facebook.com/UdakoArgazkiak orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterretan eta Facebook bidez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitatekerik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

* Oinarri guztiak: ttiki.com/52402

Sariak

1. saria: Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik. 14,2 megapixel / Full HD bideo-grabazioa. / 3 hazbeteko pantaila / Auto-fokatzeko sistema, 11 puntukoa. ISO 100-3200 sensibilitatea. Integratutako edizio funtzio ugari.



2. saria: Bi pertsonendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Orioko AISIA hotelean Arrasate Bidaiak-en eskutik.
3. saria: bi pertsonendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
Herritarren saria: Google Android sistemadun 7 hazbeteko tableta, Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.
Boto emaleentzat saria: Munduko kafe ezberdinen oinarria, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

KB
photoestudio
www.kbphotoestudio.com

ARRASATE BIDAIK

GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin
karibu
munduko zaporeak
karibumundukosaporeak.com

FUTBOLA

Arrasate Hiria eta Agirreren omenezkoa

X.U. | ARRASATE

Liga ondo prestatzeko bidean, oraingo asteburuan lagunarteko bi torneo jokatu dituzte Debaioenean, biak zapatuan. Bate-tik, Aretxabaleta eta Bergara

gonbidatu ditu Mondrak bihar Arrasate Hiria torneoa jokatzeko. Hiruko torneoak 16:00etan hasiko dute (Bergara-UDA), eta 17:00etan jokatu dute Mondrak eta Bergarak. Azkenengo parti-

dua, berriz, Mondrak eta UDAk jokatu dute.

Bestalde, Mondraren 100. urteurrena dela eta, klubak bazkaria antolatu du irailaren 21erako, eta talde nagusian jokatu izan duten jokalariek eta zuzendaritzan egon direnak daude gonbidatuta. Irailaren 15a da izena emateko azken eguna (35 euro sartu behar dira 3035 0001 51 0010126293 kontu korrontean).

Jose Luis Agirreren omenez

Azkoagainen, berriz, Jose Luis Agirreren omenezko lagunarteko jokatu dute bihar, zapatua (17:00), Bizkaiko Erandio taldearen kontra. Hala, Aloñaren aurkezpena ere egiteko aprobetxatu dute hitzordua.



Joan den astean Mondrak irabazi zuen Bergara Hiria. | RAMON AZKARATE

TXIRRINDULARITZA

Ebakuntza egin diote Velascori, Zaragozan, asteleheneko etapan Vueltan jausi ostean

X.U. | ARRASATE

Ivan Velasco ziklista arrasatearra ez du zorte handirik izan Caja Rural taldearekin egin duen lehenengo denboraldian. Urteko lehenengo zatian lepauztaia hautsi zuen, baina Espainiako Vueltarako erreperatu zen. Astelehenean, baina, Vueltako 10. etapan erori egin zen bizi-

kletatik, eta, etapa amaitzea lortu bazuen ere, bere kabuz ibiltzeko kapaz ere ez zen Arrasatekoa.

Hala, Vueltako atsedean egunean ospitalean egin zizkioten azterketek baieztatu moduan, trokanterra hautsita zuelako ebakuntza egin zioten martitzenean bertan, Zaragozan.

MENDI BIZIKLETA

Gatzagako mendi bizikleta irteera egingo dute domekan

Oraingo asteburutik hasita, datozen bi hilabeteotan hainbat bizikleta martxa izango ditugu gurean. Hala, domekan Gatzagakoak hasiko du *denboraldia*. Irteera ordua 09:00etan izango da -izen-ematea pilotalekuan- eta jatekoak eta edatekoak izango dira ibilbidean.

da, talde ofizial batean egon ezean ia ezinezkoa delako halakoetan izena ematea. Baina esaterako, Suitzara korritzera joateko baliabideak behar dira, lauzpabost egunetarako joatea komeni da, ibilbidea ezagutu... Eta atzean gastu batzuk daude. Aurten Espainiako eta Frantzia aldeko lasterketetan ibiltzea erabaki dut, baina badut halako proba batean parte hartzeko gogoia.

Alpeetan ere izan zineten, ikus-entzunezko bat grabatzen.

Bai. Aipatu bezala, taldeak baliabide asko jarri ditu, argazkilariak, kameralariak... Taldean bost rider gara, baina beste talde bat ere badu Orbeak, eta lagun asko batzen ditu. Alpeetan Meribelen izan ginen bideoa grabatzen [Goiena.net atarian ikusgai], eta paraje ederrak daude han. Neguan eski estazio moduan funtzionatzen du, baina udan beste kirol jarduera batzuk bultzatzen ari dira, eta mendiko bizikletan ibiltzeko paraje ederrak ditu. Oso espezialista ederra izan zen.

Eta trukean, zer da Orbeak eskatu dizuena?

Ez digute aparteko eskaerarik egin, proiektu honekin konpromisoa erakustea, ez gehiago.

Materiala, kasu honetan bizikletak, garatzen joateko modu ona da zue-na moduko talde bat sortzea, zer eta nola hobe daitezkeen gauzak jakiteko.

Bai. Tarteka egiten ditugu testak, eta gure iritzia ematen diegu Orbeako ingeniariari. Eta material berria ere probatzen dugu. Gai-

nera, ez da gauza bera bizikleta buelta batean materiala probatzea edo lasterketetan; konpetizioan askoz ere gehiago estutzen ditugu bizikletak.

Lasterketek gainera, baina, beste erronka batzuk ere badituzu buruan. Hain zuzen, badakigu aurten hainbat lankiderekin apustu bat izan duzula...

Lantokian sortu zen dena, Udala auzora zeinek igo azkarrago, horixe izan zen apustua, eta nik gurrpil bakarrak igo behar nuen, *caballitoa* eginda. Apustua irabazi egin nuen, baina bizikletan apur bat dabilzanek irabazi egin zidaten [Barre], hainbat lagun joan ginen-eta.

Eta datorren urteari begira, halako erronka berezirik?

Gauza bera egin nahi dut, baina denbora luzeagoan. Hau da, atzeko gurrpilean Tourmalet igo. Bestela, Luz Ardiden moduko mendate bat. Horretarako, baina, bi hilabete hartu behar ditut ondo entrenatzeko, sorbaldendako oso nekagarria delako. Gustura ibiltzen naiz atzeko gurrpilean, eta erronka polita da. Baina behin haraino joanda, ondo egiteko izan dadila. Gutxienez bi ordu beharko ditut Tourmalet igozteko, eta hemen auzorik auzo ibili beharko dut hori entrenatzen [Barre].

Elkarrizketa osoa:

eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Carrefour
GORBEIA



Oparia

% 10

Deskontua erregaietan

Trukagarria AVIA zerbitzugune hauetan:

- Arrasate
- Gasteiz: Foronda, Urartea kalea - 23 (Alibarra izkina) eta Zurbano.

3x2 5.000 produktu baino gehiago 3x2 promozioarekin

Irailaren 11ra arte

60 € baino gehiagoko erosketengatik Club Carrefour zure txartela aurkeztuz



Irailaren 21era arte

Doan
Autobideko bidesaria

Joan-Etorria

Autobideak:

Carrefour Gorbeia etortzeko AP-1 (Eibar -Etxabari Ibiña) eta AP-68 (Laudio-Altube)

- Erosketa tiketa aurkeztuz + egun beraren bidesariko frogagiria.

Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.



Folk-pop doinuak Kulturaten

- ▶ 'Kulturate Akustikoak' kontzertu bildumak, bi asteburutan, bost emanaldi batuko ditu
- ▶ Kontzertu lasaiak eta doakoak dira; Kulturateko areto nagusian, 20:00etan, guztiak

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Iraileko kultura eskaintza *Kulturate Akustikoak* kontzertu bildumarekin hasiko dute Arrasaten. Aurtengoa bosgarren edizioa da eta, aurrekoetan moduan, Seber Altube plazan dagoen Kulturateko areto nagusia musika areto bihurtuko du Arrasateko Udaleko Kultura sailak.

Bost kontzertu izango dira, bi asteburutan banatuta, oraingoan eta hurrengoan; guztiak doan eta 20:00etan.

Formatu txikikoak eta lasaiak

Entzule zein musikariaren aldetik aurreko edizioek izan duten erantzun onak bultzatuta antolatu dute gaur hasi eta irailaren 15ean amaituko den aurtengo edizioa, Karmelo Alberdi Kultura teknikariaren esanetan: "Musika ezohikoa da; sarritan gurean izaten ez diren musika estiloak entzuzera animatuko nuke jendea".

Urte osoan ibiltzen du Alberdik jaialdia buruan eta interesgarriak iruditzen zaizkion izenekin zerrenda bat osatuz doa. San Juanak inguruan hasten da kontaktuak egiten eta aurrekontuaren zein behar duten baliabideen arabera egiten du gero puzzlea. "Gutxitan ekartzen ditugu biran dabilzan taldeak, noiz edo noiz tokatu izan den arren. Aurrekontu mugatua izan dugu beti, 9.000-10.000 euro ingurukoa, eta aurtun ere horrela da; hastapenetatik dugun asmoa izan da diru askorik ez gastatzea. Formatu txikiko emanaldiak dira", dio Alberdik.

Akustiko moduan bataiatuta

"Ordubete inguruko emanaldiak izaten dira eta jarrita lasai entzutekoak", gaineratu dute Kultura sailetik. Kontzertu bildumak *Akustikoa* izena duen arren, egon izan dira anplifikadore edo instrumentu elektrikoak erabiltzen dituzten taldeak ere, Audience taldea, esateko. "Helburua, azken finean, da folk-pop kutsua lantzen duten taldeak gurera ekartzea,



ARRASATEKO UDALA

DIUKE | IRAILAREN 7, ZAPATUA | 20:00


Khora, Afrikako harpa, biolontxelo eta akordeoiaren arteko nahasketa bitxia egiten duen laukotea da, musika afrikarra eta europarra jazzarekin uztartuz. Frantsesez abesten dute, *Griot* poeten hitzak oinarri hartuta.



ARRASATEKO UDALA

OLIVENZA | IRAILAREN 8, DOMEKA | 20:00

Mediterraneoko folk kutsua du Extremadurako Cira Fernández eta Raúl Marquesek osatutako bikoteak. Antolatzaileen esanetan, kantu batzuk, Bebe ekartzen dute gogora. Arrasatera perkusio-jolearekin batekin datoz.



ARRASATEKO UDALA

SOLEDAD VELEZ | IRAILAREN 13A, EGUBAKOITZA | 20:00

Indar handiko abeslaria da gidaria. Folk musika egiten dute baina Velezek duen kantatzeko modua gertuago dago P.J. Harvey edo Janis Joplinengandik. Bikote formatua duten arren, bateria-jotzaileaz datoz.



ARRASATEKO UDALA

IGELAREN BANDA | IRAILAREN 15A, DOMEKA | 20:00

Talde instrumentala da, eta euskal musika tradizionala jazz ukituekin egiten du. Hasier Oleaga (bateria-jotzailea) eta Amair Cajaravillek (biolontxelo) osatzen dute Bixente Martinezek gidatutako hirukotea.

ESANAK

"Jarrita, lasai entzuteko kontzertuak dira, dohainik"

KARMELO ALBERDI | KULTURA TEKNIKARIA

hau da, sarritan musika zirkuituetatik kanpo geratzen diren taldeei lekua egitea".

Aurtengo egitarauak Euskal Herriko musikariak batu ditu, batetik: Markos Untzetak zabalduko du gaur, aurtengo edizioa eta Igelaren Banda taldeak itxiko du, irailaren 15ean. Tartean joko duten gainontzeko hiru taldeak estatutik datoz, atzerriko taldekideak badituzte ere. "Diouke taldea Valentziatik dator, Senegalgo eta Frantziako kide bana baditu ere; domekan izango den Olivenza taldea, berriz, Extremadurako eta Portugalgo bi musikaririk osatzen dute eta hurrengo egubakoitzean, irailaren 13an etorriko den Soledad Velez, ostera, Murtziatik dator, taldeari izena eman dion abeslaria jaiotzez Txilekoa den arren", azaldu du kultura teknikariak.

Kulturate Akustikoak ekimenak gehienbat adin batetik aurrerako entzuleak batu baditu ere, edozeini gustatzeko moduko taldeak direla diote antolatzaileek, gazteei ere eginez gonbidapena.



ARRASATEKO UDALA

MARKOS UNTZETA | IRAILAREN 6A, EGUBAKOITZA | 20:00

Atzerrian eman zituen musikan lehen pausoak Untzeta eibartarrak, eta euskaraz kanatzen badu ere, hortik dator kio soinu amerikarrak jorrazteko duen joera (bluesa, rock amerikarra). Laukote formatuan etorriko da.

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA
XIII. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agostindarren industrialdea-Soltxate. G. kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte

Tel.: 948 32 65 35
soltxate@pamiela.com
Arauk: www.pamiela.com



2013



Los Galernakoak Lost Acapulco taldeko baxu-jotzailearekin. | MAITE LIZARANZU

Los Galernaren 'Akelarre' diskoa Mexikon arrakastaz aurkeztuta

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Emankorra izan da surf musika oinarri duen Arrasateko Los Galerna taldeak abuztuaren Mexikora egin duen bidaia. 18 egunean 12 kontzertu egin dituzte; gehienbat, Mexiko Hirian eta Chiapasen; eta hamaika disko saldu dituzte sekulako harrera egin dieten zaleen artean.

Bezperan eskuratutako *Akelarre*, hirugarren lanaren kopia egin berriarekin abiatu ziren. Handik itzulita etxeko zaleen aurrean aurkeztuko dute: Deustuko Crazy Horse aretoan izango dira gaur, egubakoitza, Lost Acapulco ibilbide luzeko talde mexikarrekin eta bihar, berri, Arrasateko Taupa tabernan, 19:00etan.

Aspaldiko ametsa beteta

Josu Gartzia taldekideak, Mexikon lan kontuengatik bizi izandakoak, han egindako kontaktuak baliatuz lortu zuten Arrasateko surf musikaren jaioterrira joateko txartela, taldearen aspaldiko ametsa betez horrela. Ez dira esku-hutsik etxeratu, gainera, kontzertu gehiago emateko eskaintza jasotzeaz gainera, datorren urtean argitaratzeko asmoa dute eta Mexikoko The Cavernarios taldearekin batera singlea.

Bada, sekulako esperientzia bizi ondoren, datozen erronkei heltzeko indarberrituta daude: Euskal Herrian, Madrilen eta Holandan erakutsi gura dute, hain zuzen ere.

Jorge Oteitzaren bilduma artistiko ezohikoa ikusgai dago Arantzazun

70 marrazki, estanpak, poesiak eta eskultura txikiak Gandiaga Topagunean

A. A. | OÑATI

Hamar urte bete dira aurten Jorge Oteiza hil zela eta baita haren omenez Altzuzan museoa ireki zutenetik; 50 urte bete ditu, berri, Oteitzaren *Quosque tandem* (Añamendi, 1963) liburuak. Efemeride horiek aitzakia hartuta dago ikusgai Arantzazun *Jorge Oteiza: marrazkiak, estanpak eta hitzak* erakusketa, Oñatiko Udalaren, Arantzazu Gaur Fundazioaren eta Udako Euskal Unibertsitatearen eskutik. Irailaren 29ra bitartean izango da Gandiaga Topagunean, martitzenetik egubakoitzera 17:00etatik 19:00etara eta asteburuetan eta jaiegunetan, eguerdian ere bai, 12:00etatik 14:00etara.

Irudiak eta hitzak ikusgai

Oteitzak bere etxetat omen zuen Arantzazu; orain dela urte batzuk, Gandiaga eta erakusketaren komisarioa den Felix Marañarekin batera, horrelako bilduma bat egitekotan ibili ziren, baina ez ziren bilduma egitera heldu. Komisarioak hartu zuen gero helburua betetzearen ardura, eta horrela egin zuen, Oteitzaren eskultura handiak aukeratu gabe askotariko lanak hartuta, artis-



Arantzazuko Gandiaga Topagunean dagoen erakusketa. | JAGOBA DOMINGO

taren alde ez hain ezaguna erakusten duen bilduma.

Hiru ataletan dago erakusketa banatuta: 70 marrazki, estanpa (gaur egun logotipo moduan ezagunagoa) poema eta 12 eskultura txiki, besteak beste.

Bisita gidatuak

Irailaren 7an eta 21ean (zapatua biak) dira bisita gidatuak. Lau guztira, egun bakoitzeko bina: gaztelarazkoak 12:00etan eta euskarazkoak 13:00etan. Ez da alde aurretik izenik eman behar.

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazubi plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Barrenkalea, 33
(Irizar jauregia)
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68
Faxa: 943 79 92 62
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Intxaurtxueta 10 Eskoriatza

Tel.: 943 79 21 68
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA

Bidebarrieta, 18-behea Oñati
Tel.: 943 78 24 96
Faxa: 943 71 82 96
euskaltegia@oinati.net

Matrikula zabalik

UDAL
EUSKALTEGIAK
ikasturtea curso 13/14



emaiozu
euskarari



Sergio Uriarte | Pilotako entrenatzailea

Sergio Uriarte pilotako entrenatzailea, Oñatiko pilotalekuan.

"Pilotan, entrenatzaile ona izateko, ilusioa, gogoia eta profesionaltasuna izatea ezinbestekoa da"

NAIARA URIARTE | OÑATI

Sergio Uriartek (Aretxabaleta, 1984) Heziketa Fisikoko irakasle ikasketak egin zituen Huhezín. Haiek amaituta, eskolak eman ditu zenbait ikastetxetan, eta Madrilen ere izana da, gimnasio-ko monitorea izateko kursoak egiten. Egun, gimnasio-ko monitorea eta pilotako irakasle lanetan dihardu, eta kirola eta umeak bere bizitzako pasioak dira.

Nondik datorkizu pilotarekiko zale-tasuna?

Aitaita pilotazale amorratua zen, eta gaztetatik harekin ikusten nituen pantaila txikian partiduak. Batzuetan, herrian edo inguruan partiduak baziren, elkarrekin ikustera joaten ginen.

Noiz hasi zinen jokatzeko?

5 urterekin hasi nintzen, eta kategoria guztietan ibili naiz: haur, benjamin, alebin, kadete, gazte eta afizionatu. Torneo gehienak Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian jokatu ditut, baina Nafarroan ere izan ditut.

Zein orotzape dituzu entrena-tzaileaz eta zure entrenamenduez?

San Migel izan zen nire entrena-tzailea. Egun, erreferente gisa daukat. Profesional handia zen: zorrotza, baina gertukoa. San Migelekin astean bi edo hiru aldiz entrenatzeaz gain, nire kabuz egunero ibiltzen nintzen pilotan. Oso garrantzitsua da egunero entrenatzea, 30-40 minutu inguru nire kontu. Batik bat, eskuak gogortzeko. Prestakuntza fisikoa gimnasioarekin osatzen nuen. Horrela ezagutu nuen hain gustuko dudana gimnasio mundua.

Noiztik zara pilota entrenatzaile? Hamazortzi urtez aritu naiz Aretxabaletako gaztetxoak entrenatzen. Kategoria guztietan, alegia. Orain, berriz, urtebete daramat Oñatiko nerabeekin. Izan ere, orain dela urtebete Oñatira etorri nintzen bizi izatera, eta, horren ondorioz, Aretxabaletako taldeak utzi nituen.

Zaila iruditzen zaizu irakastea?

Irakastea ez da gauza erraza. Umeen jarrera kontuan hartu behar da, eta haien ikuspegitik bizitza ulertu. Bien arteko elkarrekin beharrezkoa da, eta hori lortzea ez da lan erraza. Gainera, kategoria guztiak ditudanez, adin tartea ezberdina da eta egokitu egin behar dut. Bi motatako ikasleak ditut: denbora-pasa datozenak eta pilota

gustuko dutenak. Gaur egungo umeek eskolaz kanpoko ekintza gehiegi dituzte. Horren ondorioz, asko gogo barik etortzen dira, denbora pasatzera. Beste batzuk, zorionez, benetan kirol hau maitatzen dutelako. Nire eginkizuna da guztiei pilotan erakustea, baina interesa jartzen duten umei arreta berezia jartzen diet. Izan ere, umetan gaztetxo asko daude, baina, nagusi egiten diren neurrian, kopurua murriztu egiten da. Kadeteetan eta gazteetan oso pilotari gutxi ditugu. Horrenbestez, gure eginkizuna da txikitik gogoko dutenengan pilotarekiko pasioa sortzea eta kirol hau maitatzea.

Zer irakasten diezu?

Hasieran, kirol hau atsegin izatea, hori irakasten saiatzen naiz. Dinamikoa izaten ere ahalegintzen naiz. Behin kirola gustuko dutela, hainbat gauza irakasten diet: dejada eskuma eta ezkerrekin, auto-eskua, kakoa... Kadeteetan eta gazteetan, aldiz, taktiketan eta hobetze lanetan zentratzen naiz.

Alor pertsonalean zer eskaintzen dizu lanak?

Gustatzen zaidana besteei erakusteko aukera izatea. Erabat betetzen nau gazteek nik izan nuen ilusioa izateak.

Kirola gustuko izanik, gogoko besteren bat?

Futbolekin ere aritu naiz txikitik, eta noizean behin partidutxoren bat jokatzeko dut. Tenisa eta mendia ere bai.

Etorkizunean zein lanetan jardun nahiko zenuke?

Heziketa fisikoko irakasle lanetan jardun nahiko nuke. Hiruzpalau urtez ordezkapenetan jardun dut, baina, gaur egungo krisia dela-eta, egoera ez da erraza. Horren ondorioz, muskulazio monitorea dihardut, eta pilotako irakasle. Gustura nago eta egiten dudana etorkizunean hala ere izatea gustatuko litzaidake.

MARRA AZKARREZ

Pilotari gustukoena: Irujo.

Ikusitako azken filma: *Fast and Furious*.

Txoko bat: Oñatiko Zañartu auzoa.

Betetzeko duzun ametsa: Aita izatea.

Musika talde bat: Extremoduro.

Bidaia gustukoena: Australiara.


Egunero gosaltzen duzuna: Oloa eta fruta.

Beti daramazu: Poltsikoko telefonoa.

Arroparik gustukoena: Praka motzak.

Gorrotatzen duzun abestia: *Macarena*.

Liburu bat: *La zona cero sobre nutrición*.



1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Sagasti auzoan, 90 metro koadroko etxebizitza salgai: hiru logela, egongela handia, bi bainugela, balkoi bat, terraza bat, despentsa bat eta guztiz jantzitako sukaldia. Berogailua, igogailua eta garaje itxiarekin. 617 00 37 30 edo 687 11 07 21

Oñati. Erdigunean. Guztiz berriua, kalitate oneko materialekin. 110 metro koadro. Hiru logela. Txokoa. Lorategi-lursaila. Prezio interesgarria. Deitu 650 60 12 14 telefonora.

102. EROSI

Oñati. Etxebizitza erosi edota errentan hartuko nuke. Egokiena sukaldia, egongela, bi logela eta komunak izateko litzateke. Garajea ondolegoke baina ez da ezinbestekoa. 670 02 32 67

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxe berria, erdialdean, jantzita. Bi terraza handirekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 73 54 94

Aretxabaleta. Logela bateko apartamentua ematen da errentan, lralabarrin, Beroako etxeetan. Garajea barne. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 72 04 63

Elgeta. Etxebizitza errentan ematen da Elgetako Salbador kalean. bi logela, sukaldia eta egongela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650 23 10 19

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan San Lorentzen. Lau logela eta bi bainugela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650 56 62 06

Zaragoza. Unibertsitate kanpusetik gertu. Dena kanpoaldean. Lau logela. Egongela. Sukaldia. Bi bainugela. Garajea. Aire egokitua. Interesatuok deitu 943 76 08 31 edo 659 58 56 83 zenbakietara.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, hiru logelakoa, prezio onean. 679 60 08 48

Arrasaten. etxea hartuko nuke errentan. 655 88 49 10

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza hartu nahi dut errentan. Familia txikia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 36 17 62

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Erdialdean logela ematen da errentan. Josean. 603 14 28 89

Arrasate. Bilogelako etxebizitza bat osatzeko pertsona bat behar da, Nafarroa etorbidean. 635 70 79 69

Arrasate. Erdialdean bi logela alokatzen dira. 693 80 64 18

Arrasate. Erdigunean logela ematen da errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 33 73 89

Arrasate. Logela ematen da errentan Erguin kalean, unibertsitatetik gertu. 220 euro hilabetero. Wifiarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 79 97 91

Gela bat alokatu nahi dut Eskoriatzan. 2013ko irailaren hasieratik abenduaren bukaera edo erdialdera arte gela bat alokatu nahi dut, Eskoriatzan. 39 urtetako emakume eskaldun eta arduratsua naiz. Deitu 620 40 83 80 telefonora

Oñati. Pisua osatzeko pertsona bat beharko genuke. Langilea izatea gustatuko litzazuke. Deitu zenbaki honetara 20:00etatik aurrera. 653 74 87 51

Pixukide bila. Pixukide bila nabil Arrasaten pisu bat konpartitzeko. Lehen bailehen sartzeko izango litzazuke. Aukeran, nahiago jende gaztea eta euskalduna. Estixu. 667 32 26 59

2. GARAJEAK

201. SALDU

Elgeta. Salbador 21ean, garajea salgai. 650 23 10 19

Oñati. Garaje itxia salgai Arantzazuko Ama kaleko 21ean. Handia da eta autoa garbitzeko lekua dauka. 630 29 44 89 edo 946 76 19 24

204. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Garaje edo garaje marra baten bila nabil, alokairuan, Aretxabaletan. Lausitatik gertu ahal bada, hobeto. 699 11 43 23

Lan bila. Garbitasunean, nagusien zaintzan edota informatika eta webguneen programazioan lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 04 15 45

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ARRASATE

Esperientziadun ile-apaintzailea behar da.
943 79 79 65

Bergara. Esperientziadun neska behar da edateko emakumea zaindu eta etxeko lanak egiteko. 669 53 97 03

402. ESKAERAK

Aretxabaleta edo Arrasate. Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko. 943 79 44 84

Arrasate. Emakumea gertu umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko zein ospitalean gauak egiteko. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

Arrasate. Neska gertu nagusiak pasioan ateratzeko, orduka, edota garbitasun lanak egiteko. 629 80 77 73

Bergara edo Arrasate. Bergaran edo Arrasaten lana aurkitu nahi dut. Edozer lan egiteko prest nago. Deitu telefono zenbaki honetara: 602 87 46 25

Bergara edo Arrasate. Mutila lanerako gertu. Kadim. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 605 44 61 98

Bergara edo Arrasate. Neska eskaldun arduratsua etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko prest. 685 77 56 35

